



UDAL AURREKONTUA

Ia 37 milioi euro

orain duzu aukera!

aek

www.aeknet.net

matrikula zabalik



ZEZEN BIDE AUTO ESKOLA



**Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak
Teorikako irakaslea egun osoan**



GIDA-BAIMENAK

Ego Gain, 4 - behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 20 34 45

EIBAR

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA

Bonardi
betaurrekoak
doan

kitxalak barne

konbi
eskaintzak
MultiOpticas

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multiopticasinguzkoa.com



J. Carlos Guerra 1

Tel. 943 79 29 95

ARRASATE

Ibarguren 16

Tel. 943 76 15 75

BERGARA

O'Neira 11 - GROC

Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bizbarrieta 2

Tel. 943 20 65 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7

Tel. 943 51 78 11

ERMENTERIA

Mardibil M. 6.

Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Erp.

Tel. 943 88 91 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23

Tel. 943 69 84 79

TOLOSA



Euskara Elkarte

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gaztearen bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzeta eta berakatzeta berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DENBORIA EMON.- Denborapasa egon. "Abontzako Pantaleonek, denboria emonaz mailletan egitten eban suteixan".

DENBORIA LUZE JUAN.- Luze egin, luzetsi. "Zain-egoniam, denboria luze juaten da".

DESBARDIN.- Maila berean ez dagoena; ez du diferente esan nahi. "Mahai hau desbardina dago jasogarririk barik".

DEZTERARRI / DEZTERIA.- Zorroztarria. "Dezterarririk urakin biharra egitten dau". "Dezteri edo zorroztarria, Eibarko lantegi guztietan".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

OHARRA:

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienez baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarriarik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA


asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Zer dela-eta da bekatu espainolez idaztea, eta ez espainolez hitz egitea? Zer dela-eta da delitu espainolez hitz egitea esandakoa espainolez esan denaren aitzakian espainiarrekin bat egitea ez denean delitu?"

(Xabier Sileira, idazlea)

"Sahararak leku irekian bizi dira, baina hura kartzela bat da. Egoera penagarria da eta, bertara joandakoan, ez dela ezer pasatzen ematen badu ere, militarrez eta edozein unetan lehertu daitezkeen minaz inguratuta daude"

(Jon Arantzeta, bidalarria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Berritasunak alarguntasun-sarian

Urtarrilaren 1ean, indarrean sartu da Gizarte Segurantzako gaietan neurri berriak ezartzen dituen Legea. Besteak beste aldaketak xedatu ditu aldi baterako eta behin betiko lanerako ezgaitasunean, jubilazioan, eta alarguntasun-saria jasotzeko baldintzetan.

Azken gai honi dagokionean, aldaketa nabarmena da orain izateko bikoteak alarguntasun-saria kobratu ahal izango dutela, nahiz eta ez denak eta ez kasu guztietan.

Izateko bikoteei aitortzen zaien eskubide hau berria da, zeren Lege honen indarraldira arte, alarguntasun-saria jaso ahal izateko hala-beharrez ezkondata egon beharra zegoen... Ezkontza formalik gabe, saririk ez.

Egun ostera alarguntasun-pentsioa eskuratu ahal izango dute gutxienez bost urteko elkarbizitza iraunkor eta nabarmena froga dezaketen bikoteek (enpadronamenduziurtagiri bitartez), edota dagokion Erregistroan izateko bikote moduan gutxienez bi urte izena emanda daramaten bikoteek.

Ezkondatakoen kasuan alarguntasuneko saria kobratzeko eskubidea ia unibertsal delarik, izateko bikoteen kasuan, eskubidea bizirik geratzen den bikote-kidearen dirusarreraren arabera da. Seme-alabarik izatekotan, bizirik geratzen denak azken urtean hildakoa eta bere dirusarren baturaren %50 baino dirusarrerara txikiagoak zituela frogatu beharko du pensioa jaso ahal izateko. Seme-alabarik ezean, ehuneko hori %25ean finkatzen da. Hala ere, saria jaso ahal izango dute baita ere Lanbide arteko gutxieneko soldata baino 1,5 aldiz dirusarrera txikiagoak egiaztatzen dituzten bikote-kide alargunek.

Elena Laka
(ABOKATUA)

Ezker Batua TAO ezartzearen kontra

Ezker Batua Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua (TAO) ezartzearekin desadostasuna agertu du Elixabete Gómez Ezker Batuko ordezkariak. Taldeko bozemaileak aditzera eman duenez, "herrian aparkalekuak behar dira aspaldidanik eta argi daukagu trafikoa eta aparkatzeko tokiak berrantolatu egin behar direla. Arazoari irtenbidea eman behar zaio, baina Ezker Batuan ez dugu uste erdialdeko kaleetan TAO ezarrita aparkatzeko orduan dagoen arazoa konponduko denik; aparkaleku publikoak sortzea edo aurreko hauteskundeetan eman genuen eta beste alderdiren batek ere eskatu zuen ideari jarraitzea, hau da, babes ofizialeko garajeak egitea egokiagoa dela pentsatzen dugu". Herrian toki gutxi egoteak horrelako ekimenei trabak ipintzen dietela badakitela diote



AMAIJA JAIO

Ezker Batua-tik, "baina proiektu guztiak salmenta libreko etxeen eraikuntzara bideratzen dira. Etxe horiek garajeak dituztela eta, beraz, arazoa arintzen lagunduko dutela esango digute, baina herritar guztiak dakigu hori ez dela egia".

Bestalde, Zarautz, Tolosa, Azpeitia, Beasain eta Arrasaten NAN egiteko bulegoak itxeko erabakia dela-eta, Ezker Batua

Berdeak bulego horietan eskaintzen diren zerbitzuak berreskuratzeko hartu beharreko neurriak berehala hartzeko eskaera egin zion Gobernuako Gipuzkoako Azpiordezkariari, aurreko astean Batzar Nagusietan aurkeztutako idatzian. Eibarko bulegoari eusteko eskaera Eibarko Udalak ere egin du eta, azkenean, bulegoa ez dute itxiko.

Eskolak Euskaldu-aren salaketa

Eskolak Euskaldu Herri Ekimenak kanpaina berria ipini du martxan, "Eskolak Euskaldu behar du. Iruzurrik ez!" goiburuarekin. Kanpaina iaz egindakoaren jarraipena da eta hainbat mobilizazio aurrekisi dituzte. Ekimeneko ordezkarien ustez, "Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean 16 urteko gazte guztiak euskaldun oso izan daitezten oraindik asko dago egiteke". Horregatik, ikasleak euskaldunduko dituen hezkuntza sistema lortzeko lanean jarraituko dute. Iaz, hezkuntza markoa dela-eta, sinadura bilketa egin zuten eta ekimenaren aldarrikapen eta salaketekin bat egiten zuten 107.768 sinadura lortu zituzten. Hala ere, agintariak gaiaren inguruko eztabaidarik ez dutela sortu, ezta tramitatu salatu nahi dute. Hori ikusita, instituzioei presioa egiteko salaketa kanpaina garatuko



da hilaren 25era arte: "Eskura izango ditugun postaletan, gure izen eta nortasun agiriak, gaur egungo hizkuntza politikarekin gure desadostasuna agerian lagatzea da helburua". Horrez gain, urtarrilaren 26an (zapatua) Untzagan mobilizazioa egingo da.

Terrazak urte osoan

Tabernariak terrazak urte osoan ipintzeko aukera izango dute, Udalak horren inguruko ordenantza moldatu du-eta. Berez terraza sasoia Aste Santuan hasi eta urriaren 12ra arte luzatu ohi da, baina tabernariak eu-

ren kabuz beste sasoi batzutan ere terraza ipintzen zutela ikusita, Udalak hori arautzeko erabakia hartu du. Tabernariak aukera bi izango dute aurrerantzean: terraza bakarrik udan ipini nahi dutenek orain arteko tarifa ordain-

du beharko dute (10'55 euro okupatutako metro karratu bakoitzeko) eta urte osoan ipini nahi dutenek, berriz, horren bikoitza ordaindu beharko dute. Hala ere, tarteko formulak bilatzeko aukera ez dute baztertu.

autuan

PARKING-EN PREZIOA GORA

Txaltxa Zelai eta Txomoneko aparkalekuen prezioak %4'1 egingo du gora 2008an, KPlari jarraituta. Prezio berriak hauek izango dira: lehenengo 120 minutuetan 0'0291 euro ordainduko da minutuko (3'5 euro denera); 121 minutu eta 240 minutu bitartean 0'0197 euro ordainduko da minutuko eta hortik aurrerako minutu bakoitzeko, berriz, 0'0149 euro. Amaierako kopuruari BEZ gehituko diote eta hortik ateratzen den zerbakia euroko 5 zentimora biribilduko dute.

27.400 EIBARTAR

Inguruko beste herri askotan bizi denari jarraituta, Eibarren gero eta biztanle gutxiago dago. Azken urtean 126 biztanle galdu ditu Eibarrek, azken 30 urteotako

joerari jarraituta; herrira ailegatutako mila etorkinek edo jaiotza-tasan eman den igoerak ezin izan dute hautsi biztanleak galtzeko joera hori. Herriak biztanle gehien izan duen urtea 1978a izan zen (39.500), baina hortik aurrera biztanle kopuruak urtero egin du behera, gaur egun dauden 27.400 biztanlera ailegatu arte.

BONOLOTOAK SARIA LAGA DU

Astelehenean Bonolotoan lehenengo mailako saria (6 zenbaki asmatuta) eraman zuen boletoa Eibarren baliokotu zuten, Calbeton kaleko administrazioan. Irabazleak 113.805'98 euroko saria jasoko du. Bonolotoak urtero sari potoloren bat laga du gurean azken aldian: orain urtebete 72.000 euroko saria eman zuen eta 2005eko abenduan, berriz, beste horrenbeste.



San Blas

Beti ere pentsatu izan dut San Blas opilaren-ganako daukadan grinak zerbaitek mantentzen duela piztuta. Lehen begirada batean, ez da normala itxura hain arrunta eta eskasa daukan jaki batek horren besteko adikzioa sortzea. Eta adikzio hitza erabiltzen dut, susmo hori beti izan dudalako.

Aurreko asteburuan eibartar talde batekin egin nuen topo mendian eta, nola ez, San Blas zuten postretzat. Are gehiago, mahaikideetako batek San Blasak egitea du ogibide (edo sanblasbide). Ezin izan nuen galderatxo ezkatatu. *—Zuek zer jartzen diozue San Blasari?* Erantzuna begirada gaiztoa eta farretxoa izan ziren. Ez zuen besterik bota. Argi dago. Tabakoak bezala, adikzioa sortzen duen osagai sekreturen bat darama. Eta ez da anisa, ez. Hori "tapadera" bat besterik ez da.

Gizaldi batetik bestera pasatzen den sekretu horietako bat da. Seguru. Izango da Urko edo Arrate inguruan ezta iriak sendatu eta opilarenganako dependetzia sortzen duen landare edo fruituren bat. Eta ondo jakin dute gure arbasoek sekretua gordetzen. Itxura zakarra eta porlanaren ukimena jarri diote. Era horretan bailarakoek bakarrik jango dute eta nahikoa landare edo fuitu nahikoa egongo da San Blasaren infernua jauzi garenok morroitzaren azpian segi dezagun.

Nik behizat argi daukat. Aspaldi opilaren eskuetan eroritakoa nauzue eta galduta nago erabat. Baina ez dut egoera honetatik ateratzeko ezer egingo. Nire ezta irria nahiko ahula da eta erraz hartzen dut katarroa. Bedeinkatutakoa izan edo ez, San Blasak jaten jarraitu behar dut beharrez. Ala aitakia hau "tapadera" hutsa besterik ez da izango?

Oier San Martin

Tailerrak Alzheimer gaixoen zaindariantzat

Afagi Alzheimer Gaixoen Senitartekoan Elkarteak hainbat tailer monografiko ipini du martxan gaixoak zaindu behar dituztenak trebatzeko asmoarekin. Eibarren atzo arratsaldean egin zen lehenengoa, baina datozen hilabeteetarako honako saioak antolatuta dituzte: otsailaren 21ean laguntza teknikoaren gaia landuko du Icavi-Bikainek, martxoaren 13an gaixoarekin komunikatzeko moduen inguruko saioa emango du Josune

Méndezek, apirilaren 17an Maria Victoria Lucerok gaixoa etxean nola estimulatuko du, maiatzaren 15ean doluaren gainean jardungo du Amaia Laitegik eta 'Zaintzeko zaindu' izenburua izango duen azken saioa ekainaren 15ean egingo da Lahar elkartearen eskutik. Tailerrak doan dira, baina joan nahi duenak alde aurretik izena eman beharko du 943-297118 telefonora deituta edo afagi@afagi.org helbidera idatzita.



Enpresak tokiz aldatzeko laguntzak

Empresak industrialdeetara eraman nahi dituztenei kredituak emango dizkie Udalak, interesik ordaindu barik. Maileguak 10 urtetan bueltatu beharrekoak izango dira

eta interesa dutenek otsailaren 20a eta apirilaren 30a bitartean aurkeztu beharko dute eskaera Udal Erregistroan. Horrelako erreztasunekin herri barruan dauden enpresetako jabeak tai-

lerrak Matsaria, Ibur Erreka edo Erisonora eramatera animatu nahi dituzte. Udalak 1'8 milioi euroko partida ezarri du plana aurrera eramateko eta laguntzak lantegiak duen behargin-kopuruari begira banatuko dituzte, muga batzuen barruan: langile bakarra edo langile bi dituen enpresak 30.000 euro jasoko du gehienez, 3-5 langile bitartekoak 42.000 euro eta 6-10 bitartekoak 60.000 euro. 10 beharginetatik aurrera 60.000 euro emango dituzte eta hortik aurrerako langile bakoitzeko kopuru horri 6.000 euro gehituko zaizkio. Bestalde, libre laguntzen den lurzoruarentzat laguntzak emango dituzte, 10.000 euro gehienez, azalera eta kopuaren arabera.



Interesa duten enpresak otsailaren 20a eta apirilaren 30a bitartean aurkeztu beharko dute eskaera.

ORAIN DELA

10 urte

1997-XII-19
218. ZKIA.



Markeskua jauregixa Taller Eskolakuak konpondu zeben.



Maiden Castillo japonera juan zan jokatzera.

- Udalak 95.000 pasatutako erosi zeban Pantxika astia eta jardi bat eta urtebetiam amonizatu zekem jarduari. Udala astuaren ideia jarraituko, bera bizitzeko toki aproposa Sumendiak basarriam aurkikatu zeban.
- Markeskua jaittik bahera barristu zeban Taller eskolako ikasleak. Lokalean inauguratuaren Herriem Europa fundamenduarekin hitzarmena sinatu zeko asmua agertu zeban udal ordezkariak.
- Udalako Ekonomia sailak enpresariaren artian egindako inkesta batan arabera, lur industrialaren prezio altua eta arazo nagusiena. Baita kontsumaren erdian, esportazioa eta punturik atalema.
- Maiden Castillo Eibartarrak taldeko jokalarria Japonarako bidia hartu zeban, bertan kaintat hilerbete egiteko. Hango esperientzia artian lagata, herriantzeran eta zera eta kan jarraitzen dau jokatzen.

Ikastaro bi Debegesan

Garapen sozialerako teknikiariak trebatzeko ikastaroa jarriko du abian Debegesak, Lanbideren zerbitzuaren bidez. Ikastaroa Daiteke Etengabeko Orientazio eta Gaitasunen Garapenerako Erakundeak emango du eta helburua, antolatzaileen berbetan, "bazterketa soziala jasateko arriskuan dauden talde sozialei lagundu eta aholkatzeko gai izango diren profesionalak hezitzea" da. Horrekin batera, profesional berriak talde horien bergizarteratze eta lan-munduratzeara kudeatzeko trebatuko dituzte. Ikastaroa 280 ordu ingurukoa izango da eta hainbat

modulu landuko dira: lan mundurako bitartekaritza eta orientazioa, enplegu-sarearen eza-gutza, parekidetasuna, lan-munduratzeko proiektuak eta gehiago. Hilaren 21erako aurreikusitako ikastaroaren hasiera, baina behin-betiko hasiera-data zehazteke dago oraindik. Goizez izango dira klaseak, 09.00etatik 14.00etara. Informazio gehiagorako, deitu 943-820180 telefonora (Lanbide) edo mezua igorri svo@debegesa.com helbidera.

Enpresak eratzeko ikastaroa

Bestalde, Debegesak ikastaro berria antolatu du enpresa sor-



SILBIA HERNANDEZ

tu nahi dutenentzat. Otsailaren 4tik 15era izango da ikastaroa, goizeko ordutegian. Informazio gehiagorako 943-820110 telefonora deitu daiteke.

Ikastaroez gain, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte Debegesa eta orain gutxi Clarke, Modet y Cía-rekin sinatutako

hitzarmenari esker jabetza intelektualekin eta jabetzarekin orohar lortutako gaien inguruko aholkularitza ematen hasi dira. Kontsultak egiteko eta informazio gehiago jasotzeko, www.debegesa.com helbidean enpresen atalera jo edo telefonoz deitu daiteke.



Gauza askoren premian dauden errefuxiatuek.

Sahararako elikagaiak batzen dihardute

Lugarren urtez Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeen Elkarteak Mendebaldeko Saharar dauden errefuxiatuentzat elikagaiak batzeko kanpaina ipini du martxan. Tinduf-en (Aljeria) dauden errefuxiatu-eremuetan 250.000tik gora lagun bizi da, gehienak emakumezkoak eta haurrak, oso bizi-baldintza gogorrei aurre eginez. Nazio Batuen Erakundeak egindako azterketek jarraituta, bost urtez geroztik errefuxiatuek egunean behar dituzten elikagaien %11 baino ez dute eta, gabezia horren erruz, osasun arazoak la-

riagotzen ari dira batez ere 5 urtetik beherako umeen eta haurdun edo bularra ematen dauden andren artean.

Gauza askoren premian dauden errefuxiatuak, baina kanpaina honetan hara bidaltzeko elikagaiak batzen dihardute: laguntzeko atun-kontserbak, azukrea, arroza, dilistak eta konpresak erosi daitezke. Eibarko hainbat denda-tan dihardute produktuak batzen eta, horrez gain, ikastetxeetara eramateko aukera ere badago. Urtarrilaren 30era arte jasoko dituzte elikagaiak.

San Anton jaiak, gero eta indartsuago

Urtetik urtera finkatzen doa Azitaiñen, oin dala ez urte asko hasitta, ospatzen hasi ziran jaixok. Atzo izan zan San Anton, basarriko animalixen patroiairen eguna eta, hori dala eta, meza berezixa egin zebeñ illuntze al-dian auzoko parroixian eta, ondoren, piskolabis ederrarekin gozatzeko aukeria euki zebeñ auzokuak.

Gaur, bestalde, musika emonaldixa eskinduko dau Untzaga jubilauren etxeko abesbatzak, 20.30etan hasitta.

Baiña bixarkua eta etzikua izango dira jai honetako egun nagusixenak, bixetan be goizaldian eta eguerdialdian antolautako programaziñuarekin. Holan, **bixar** goizian hainbat kirol bihurtuko dira ikuskizun: 10.00etan hasiko dira pelota jaialdixa (poligonoko Altzubarren frontoian) eta xake lehiaketia (gasolindegí aurreko parkeko arkupietan). Handik ordu erdira mountain-bike martxa hasiko da eta, hori amaittuta, 11.30etan, karabina neumati-

kuarekin jokatuko dan tiro txapelketaren V. ediziñuaren ordua izango da, hori be parkeko arkupietan. Parke berian umientzako jolasak hasiko dira 12.00xetan eta, handik ordubetera, 13.00etan, sarixak banatuko dira.

Hogel otar zozketauko dira

Domekan amaittuko dira Behetarrak Auzo Alkartiak antolatzen dittuan jaixok. 11.00etan herri-mezia ospatuko da parroixian eta, horren amaierian, eguerdiko 12.00xetan, Kezka Dantza Taldiak euskal dantzak eskinduko ditu. Umientzako jolasak, bertsolarixen saiua, musikia, euskal produktuen dastaketia eta erakusketa kulturala agertzen dira egun horretako programaziñuan. Ordubatak eta erdixetan hogei otar zozketauko dira etorritako guztien artian: hórrek otarrok auzoko basarritarrak eta gure herriko harakiñak eta txarkuteruak emondako oparixekin beteko dira. 14.30xetan Bazkari-Jaixia egingo dabe




Domeka eguerdian euskal dantzak eskinduko ditue Kezka Dantza Taldekuak.

Azittain jatetxian, Agirrebeña anai-arreben musikiaz girotuta. Une hori aprobetxauko da nagusixen ordezkari xeri omenaldixa egjitteko.

Basarri auzuetan buzoiak ipiñiko ditue

Errebalgo Merkatu Plazia itxi zanetik, gure herriko basarritarrak bertan zeken buzoi barik geratu dira eta, hasiera batian, buzoiak Rialtoko gaur egungo Merkatu Plazian kokatzia aurreikusí bazan be, azkenian ez dira hor juango eta gaur egun Correosen jasotzen daben korrespondentzia hori hamendik aurrera basarri bidietako gurutzegunietan kokatuko diren buzoietan jasoko dabe. Modu horretan, euren bizilekutik gertu izango dabe eta ez dira zertan herriraiño jaitxi biharko.

Oin dala gitxi barriro zabaldu diran Correoseko bulego barrixetan dabilta basarritarren datuak hartzen eta, horren arabera, kokatuko dira buzoi barrixak basarrixetako bidietan. Nerea Alustiza basarri arloko zinegotzixa Correos bulegoko arduradunarekin izan da azken egu-



notan eta urtenbide egokixena moduan hartu dabe azken erabagixa. Adostutako aurrekontuaren zirriborruaren arabera, 6.000 euroko partida bat zuzenduko da buzoi barri horrek ipintzeko lanetara.

Kurutzeukuako etxeak betetzen

Urki Kurutzekuako babes ofizialeko etxe barrixak, guztiz amaittuta, euren jabiei emon jakue eta baka- rrik urbanizaziño barriko parkiaren inguru- nian erremate batzuk egittia falta da. Guztira 84 dira egíndako etxebizitzak eta, ur- banizaziñua osatzeko, promozíño libreko beste hamabi etxebizitza be badagoz blo- ke batian. Giltzak entregau eta gero, hain- bat etxe jaberik gabe geratu dira, hasiera batian gitxittu fisikuendako ziranak; hónek ez dabenez hartu nahi izan, hórrek etxiok barriro zozketauko dira, oinguan aurreko zozketian ordezko moduan geratu zira- nen artian. Edifizixuen erdixan plazoleta bat doia eta Polonia Etxebarria kaletik Ku- rutzekuaraíño eskillara mekanikuak ipiñi ditue.

Urtarrilaren 14an hil zen SILVERIA MENDIKUTE IRIONDO (MIGUEL AGIRRE VICUÑAren alarguna)–ren sendikoen izenean

ESKERRIK ASKO

hileta-elizkizunetara joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi



Astelena frontoia 'Tatiago'-ren erritmora

San Sebastian eguna da domekan, urtarrillaren 20xa. Hori dala eta, Gipuzkuako hiriburuan danbor hotsak nagusi izango dira asteburu osuan. Jaixa asteburuan izanda, eibartar bat baiño gehiago haraiño juango da jaixarekin bat egittera, baiña danborradia gustoko dakanak Danborradako doiñuak entzuteko ez dau kanpora juateko premiñarik izango. Urteroko moduan, Eibarko Danborrada kontzertua eskinduko dabe Usartza Txistulari Taldiak eta Cielito Musika Bandak, beste hainbatek lagunduta. Domekan izango da kontzertua, 13.00etan Astelena frontoian.



AMALIA JAGO

Astelena frontoia jendez gainezka egoten da holako egunian eta asko animatzen dira doiñu ezaguak kantatzera.

San Sebastian egunaren inguruan urtero egiñ ohi da Eibarren Danborrada kontzertua eta aurten egunian bertan izango da. Beste urte batzuetan Untzagan egiñ izan da kontzertua, baiña urte sasoi honetan normalian hotz egitten dabela kontuan hartuta, ahal izanez gero Astelena frontoiaren babeserak billatzen dabe antolatzailliak eta azken hiruzpalau urtietan egin daben moduan, aurten be frontoian izango da emanaldixa.

100 lagun inguru

Urtetik urtera gero eta ikuskizun osotua eskintzen ahalegintzen dira eta hasieran ekitaldi nahiko xumea zana gaur egunian Eibarko Danborradaren erakusle inportantiena bihurtu da. Usartza Txistulari Taldeko Javier Zorrakinek azaldu deskunez, "hasieran Usartza Txistulari Taldekuak egoten giñan, danborradako ordezkariekin batera, baiña oin dala 3 urte Cielito Musika Bandakuak be bat egiñ eben gurekin. Gaur egunian 100 bat lagun alkartzten gara kontzerturako. Usartza eta Cielito bandak indartuta egoten gara eta, horrez gain, Eibarko Danborradako kolektibo guz-

tien ordezkariak hartzen dabe parte danbor eta kupelekin. Metal talde batek be laguntzen desku". Kontzertua Jose Miguel Laskurainek zuzenduko dau.

PROGRAMIA

- 1.- Sartzean 'Tatiago' (R. Sarriegi)
- 2.- 'Diana' (R. Sarriegi)
- 3.- 'Prudentzio Deunaren retreta' (L. Aranburu)
- 4.- 'Idiarena' (R. Sarriegi)
- 5.- 'Eibarko martxa Alpertrak' (M. Gz. Bastida)
- 6.- 'Danborraren retreta' (R. Sarriegi)
- 7.- 'Mutriku herria' (Z. Pagoaga)
- 8.- 'Danborraren polka' (R. Sarriegi)
- 9.- 'Eibarko Herria' (J. M. Sagarna)
- 10.- 'Hau dek hau' (J. L. Francesena)
- 11.- 'Pantxika' (T. Mugika)
- 12.- 'Urnietako ereserkia' (Iñigo Peña)
- 13.- 'Debako martxa' (R. Sarriegi)
- 14.- 'Donostiako martxa' (R. Sarriegi)
- 15.- Irteeran 'Tatiago' (R. Sarriegi)

Donostiarak goguan

Programiari begiratuta, beti ahalegintzen dira Donostiako Danborradako pieza ezagunak sartzen eta Raimundo Sarriegik idatzitako doiñu ezagunak pisua izango dabe domekako ekitaldixan. Halanda be, Eibarko Danborradako doiñurik ez da faltauko, aspaldikuak eta oin dala urte gitxi sortutako beste batzuk tartekatuta.

Kontzerturako sarrerria libria da eta hasieran banatzen daben programan bertan letria daken kanziñuak jasota dagoz. Horri esker, publikuak kontzertuan kantatzen parte hartzeko aukeria izaten dau eta asko animatzen dira 'Eibarko Herria', 'Debako Martxa', 'Mutriku Herria' eta 'Donostiako Martxa' abesten, batez be umiak; izan be, azken urtietan euretako askok etxetik danborra eruaten dabe, danborradako kidieri 'Tatiago' ezagunarekin laguntzeko asmua-rekin. Eta ez da gitxiagorako be, euretako asko jada Eibarko Danborradan parte hartu izan dabelako sanjuanetan eta beste asko, barriz, aurtengo jaixetarako preparatzen hasteko gogo bizixakin dagoz-eta. Eibarren, behintzat, danborradarako errelebo faltarik ez da izango.



● tartak
● enkarguak
● etxera

Bidebarrieta 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM



Oin dala gitxi egindako ikerketa baten arabera, hamar haurretatik bik bakarrik jolasten dabe egunero gurasuekin. Europan egindako ikerketa horretan ikusi da, gaiñera, denbora falta ez dala hori gertatziaren arrazoi nagusixa, asteburuetan oso gitxi aldatzen dalako datu hori. Txostenian agertzen danez, jolastu biharian, gurasuak jostailuak erostiaren alde egitten dabe.

Adittuen esanetan, jolastia da umiari gehixen laguntzen detsana inguru ezagutzen eta, aldi berian, bestiekin sozializatzen. Etxe barruan aukeria badago be jolasteko, txostena egin dabenaq kaliaren garrantzixa azpimarrau dabe, sasoi bateko ohitura sanuak gogoratuz. Zergaittik ez dan hurrekin jolasten erantzuteko, hainbat motibo azaleratu dittue: azpimarratzekuak dira denbora eza, biharrak eragindako nekia, gero eta egoistaguak bihurtu garala, burua beti lanian dakagula eta haurren jokuak ondo ez ulertzia. Haurrak ez dabe, ezinbestian, gurasuen presentzia euren onduan nabaritu bihar, baiña mesedia egitten detse helduen konplizidadiak. Gizarte bakartiago baterantz goiazen honetan, aldatzeko moduan gagoz oindiok.



Marisol Colmenero **33 urte, administratzaillia**

Bueno, bakotxak bere etxian ez dakitt zelan egitten daben, baiña nik nerian umiekin nahikua jolasten dotela uste dot. Begittantzen jata ona dala alabia-kin jolastia. Neri bideojokuen kontuak ez desta asko deitzen; nahixago dot nik berarekin jolastu, baiña bakotxak ikusiko dau bere etxian zer egiñ.



Asier Matute **28 urte, tornerua**

Nik uste dot nahikua jolasten dala. Halanda be, bideojokuekin gehixegi jolasten dala uste dot eta hori ez jata oso ondo begittantzen. Nire eritzian, umiek euren artian jolastu biharko zeben eta bideojokuak asteburuetan ondo portatzen diranian edo bakarrik era-billi biharko leukie.



Leo Sánchez **44 urte, etzekoandria**

Uste dot ezetz; ez dago denporarik horretarako. Gaur egunian konsola, bideojoku eta holakuekin umiak bakarrik ibiltzen dira, bestien biharra eduki barrik. Neretako bideokonsolen kasua atzerapausua emotia izan da, umiak ez diralako bestiekin erlazionatzen eta euren munduan murgiltzen diralako.



Eneko Irusta **26 urte, administratzaillia**

Denbora emoten deskuna. Nik uste dot nahikua jolasten dogula, baiña ez zan gaizki egongo piskat gehixago jolastia. Halanda be, lana egin bihar da, etxera zeozer jateko eruan bihar da eta horrek denbora kentzen dau. Gaiñera, jaramon gehixago egiñ bihar jakue umieri eta ez telebista aurrian laga.

Umiekin nahikua jolasten dogula uste dozu?

Helbide berria

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|---------------------|
| 1 Kardiologia | 8 Pediatria |
| 2 Zirugia | 9 Psikiatria |
| 3 Dermatologia | 10 Radiologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 11 Traumatologia |
| 5 Analiis Klinikoak | 12 Barne Medikuntza |
| 6 Ortodontzia | 13 Alergologia |
| 7 Otorrinolaringologia | 14 Koloproktologia |

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Atzo arratsaldian egindako plenuan onartu eben 2008rako Udal aurrekontua: ia 37 millioi euroko aurrekontua da, iazkoa baiño bajuagua (ia 1'8 millioi euro gitxiagokua). Azken egunotan udalian daguzen talde politikuak zirriborruari egindako zuzenketak aztertzen jardun dabe, zeintzuk onartu eta zeintzuk atzera bota erabagitzeko. Halanda be, azken hilliotan PSE-EE, EAJ, EA eta PP alderdixak egin dittuen hitzarmenak ikusitta, hau da, gobernu taldia eurak osatzen dabela kontuan hartuta, aurrekontuak babes haundixarekin onartzia espero zan atzoko plenuaren aurretik. Izan be, aittatutako taldietako ziñegotzi guztiak batuta 19 egitten dabe. Ezker Batua-Aralar taldeko ziñegotzi bixak, barriz, aurrekontuen zirriborruari egindako 'osotasunari zuzenketa' eta beste 27 zuzenketa aurkeztuta eta presupuestuari egindako kritikak ikusitta, kontrako botua emotia espero zan.



Ia 37 milioi euroko udal aurrekontua

Atzo onartzekua zan 2008rako Udal aurrekontua 36.683.629 eurokoa da, diru-sarrera eta gastuetan orekatuta. Diru-sarreraren arloan, operaziño arruntak eta kapital operaziñoak bereizten dittue alkatetzak gaixaren inguruan idatzittako memorixan. Operaziño arrunteri begiratuta, zerga zuzeneri eskindutako atalak %8'4ko igoeria dauka iazkuarekin alderatuz gero; atalaren %59a a Ondasun Higigarri eta Higieziñen gaiñeko zergak osatzen dau eta hortxe igoeria %3'2kua izan da. Halanda be, atalari osotasunian begiratzen badetsagu, igoera haundixagua euki dabe lurren balixo igoeraren zergak (%30) eta enpresa-jarduerenak (%27). Trakziño mekanikoko ibilgailluen gaiñeko zergak, barriz, errentagarritasunian 2'3ko hazkundia dauka.

Zerga ez zuzenen atalak, barriz, %10 egitten dau behera eta horretarako arrazoia holan laburbiltzen dabe: "Kontuan euki bihar da aurreko urtietan gorakada haun-

dixak euki zittuala atalak, 2004an %153 eta 2005ian %97. 2006xan bere horretan segidu eban atalak eta iaz %49ko gorakada aurreikusit genduan. Horregaittik, behera eginda be bere errentabilidadia inportantia da oindioi be. Beste herrixetan ez bezala, Eibarren ez da zerga hau kobratzen errehabilitaziño-obren kasuan". Bestalde, fatxadak eta igogailluak ipintzeko eta pegoretako akzesibilidadia hobetzeko Udalak emoten dittuan laguntzeri eusten detse. Igogaillu komunitarixuen kasuan, aurreko ejerzixuan Wenceslao Orbea eta Mekola-Ardantza-Arrate Bideko alkartiak mantentendu gastuetarako emoten diran laguntzak hartu zittuen.

Zaborren zerbitzua, karuagua

Tasa eta bestelako zergen atalari, barriz, %6'5eko igoeria dago: Mankomunidadiak Udalarri zaborren zerbitzuagaittik kobratzen detsanari aurre egitteko, zaborren gaiñeko diru-bilketan

%5eko igoeria emongo da. Ikusizunengaittik jasotako dirua, barriz, igo egin da Coliseo antzokixa zabaltziaren ondorioz. Transfrentzia arrunten atalak %12'5eko hazkundia daka 2008xan; aurten atalaren %87 Udal Finantziaziño-rako Foru Fondoak osatzen dau eta hortxe igoeria %20kua izan da. Partida zihetzeri begiratuta, Lantegi Eskolari emoten jakona jaitxi egingo da eta Enplegu-Tailarrari, Garantia Sozialeko modueleri eta Etxez-etxeko laguntzari emondakuak igo egitten dira. Ondare Sarrerak izeneko kapituluak, barriz, errentagarritasun interesantia emongo dau, aurrekuetan bezala.

Orbeako kiroldegia eta Museua

Inbersiño Errealak Bestereganatzetik sortutako sarrerarenak, barriz, 2.817.182 euroko sarrerak isladatzen dittu. Horren barruan sartzen dira, bestiak beste, Amañan Udalak saldutako etxietatik lortutako dirua.

Kapital operaziñuari dagokixonez, kapital transferentzien atalak 1.383.000 euroko zenbatekua dauka. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak Merkgagune programarendako, Orbeako kiroldegirako eta Industria Museoko bigarren zatirako emondakuak sartzen dira hortxe.

Aktibo finantzieruetan, Udal bihargiñeri aurreratutako diruaren eta fiantzen itzulerak ekarriko dittuan ingresuak aurreikusten dittue. Pasibuetan, barriz, Aurrekontu Orokorra orekatzen daben 872.293 operaziño-kreditua jasotzen dabe.

Partida haundixaguak

Gastuen atalera salto eginda, operaziño arruntak eta kapital operaziñoak bereizten dittue. Arruntetan, personal-gastuak %6'7ko hazkundia dauka eta Udal bihargiñen soldatak, Udal-hitz-ari jarraituta, %3 igotzia espero dabe. Igoera haundixagua izango dabe Ego Ibarrek, Gizarte-kintzak, Enplegu Promozioñuak,

Garitano
1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetak TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga BEHERAPENAK
Konfekzioak

☎ 943 20 22 33 Zuloagatarren, 7

Zerbitzuak, Kulturak eta Liburute-gjak, bestiak beste, eta Konsumuak eta Hirigintza-Obrak sailak jaitseria eukiko dabe euren partidetan, bestiak beste Plan Nagusiaren bulegua desagertziaren ondorioz.

Ondasun arruntan eta Zerbitzuen atalak %11ko igoeria eukiko dau, giza eta kultura edukiko partiden igoeriak lagunduta. Finantza gastuen atalian, barriz, Udal zorraren interesen ordainketarako kopurua jasotzen da eta aurreko jardunaldikua antzerakua izango da.

Transferentzia arruntetan %7'2ko hazkundia emongo da, bestiak beste zaborrak biltzarren

eta kalia garbitzarren Udalak Mankomunidadeari pagau biharreko kopuruak gora egitten dabelako. Beste partida batzuk be hazkundia eukiko dabe: garatzeko bidian dagozen herrixerri laguntzekuak, kulturakuak, gazterriakuak, etxerik-etxerako laguntzakuak, Musika Eskolakuak eta Udal Euskaltegixarenak. Kirol Patronatuak aurreko urtekuaren kopuru bera jasoko dau eta San Andres Fundaziñuak (Ospitalak) partida txikixagua jasoko dau, euren kabuz moldatzen diran zahar gitxiago dagualako bertan.

Inbersiñuak

Kapital operaziñuetan, inber-

tsio errealean atalak 9.084.826 euroko kopurua dauka; partidariak haundixena Astelena frontoia erosteko erabiliko dana dago, kopuru osuaren %40. Beste batzuk be badagoz: Txarakuako pasonibela kentzeko biala, Iparragirre-Azittaingo biala, Merkagune programia (Zuloagatarren kalia eta Udaletxeko albuetako trabesietan "elkarbizitarako" espaziuak sortzeko Untzaga eta Jubilatu Etxe inguruak urbanizatzeko), Mekola-Legarre bittartian trenbidia tapatzia, pasialekua sortzeko eta Sansaburuko parkiaren urbanizaziñua. Horrez gain, parkiak tapatzeko partidak, kirola egitteko gune barrixen sorreria, ikaste-

txiak hobetzeko partidak, Industria Museuren bigarren fasia, Orbeako kiroldegixa, artxibua tokiz aldatzia eta ikerketa-proiektuetarako partidak jasotzen ditue atal berian.

Bestalde, kapital transferentzietan aittatzekuak dira fatxada eta igogailuak ipintzeko laguntzak emonko 80.000 eu-

roko partida bana jaso dabela, Kirol Patronatuari rokodromoko kalefakziñua pagatzeko 12.000 euro emongo detsela eta IMESAri 367.182 euro, babes ofizialeko etxebitza eta garajiak sortzen laguntzeko. Finantza pasibuetan, Udal zorraren amortizaziñorako 991.055 euro islatzen dira.

Adostasun haundixa

Legegitzaldixan "adostasun haundixa" lortu dala azpimarratzen dabe memorixan eta EA, EAJ eta PPrekin siñatutako hitzarmenak "herrixaren interesarako oso positibuak" izango dirala pentsatzen dabe. Alderdixen arteko harreman ona dala eta, PPren aportaziño batzuk onartu ditue: jubilauendako dantzaldi gehixago antolatzia, herriko lorategixak hobetzia, Ubitxako iturrirria hobetzia, jaialdixa egittia herriko etxe erregionalen partehartzarekin eta San Andres ikastetxera sartzeko aldapa mekanikua egittia. Alkatia- ren ustez, "aportaziñuak dokumentua aberastu barik. Beste behiñ ez da posible izan Ezker Batua eta aurten ezta Aralar aurrekontuen inguruko adostasunera ekartzia, berbetan jardun badugu be". Amaitzeko, Udal zorpetze mailla %4'04kua izango da.



SILBIA HERNANDEZ

Inbersiñuen atalian, Orbeako kiroldegixa sartuta dago beste batzuren artian. Halanda be, inbersiñorik haundixena Astelena frontoia erosteko erabiliko dabe.

Herri Irratia Eibar

Loyola Media

S.D. EIBAR - SPORTING

Jarraitu partidua:

Borja Rodríguez

eta Herri Irratiko

kiroletako taldearekin

Urtarrilak 20 domeka, 12.00etan



90.7 Fm

“Nahi genuen sektoreekin konektatu dugu”

Urtebete pasatu da ‘Armagintzaren museoa’ zabaldu zenetik eta ordutik hona bisitari kopuru handia jaso du. Gainera, bigarren fasearekin dihardute orain, urtebete zabaltzeko asmoz. Marina Barrenak, museoko arduradunak, joan den urtearen balorazio positiboa egiten du eta baikorra da etorkizunera begira.

- Urte bat pasatu da museoak bere ateak ireki zituenetik. Nolako balorazioa egiten duzu?

Positiboa. Bilduma, espazioa eta gela ezberdinak prestatu zirenean, erakusketa osatuko zuten gauzak bere lekuan ipini zirenean, ‘Armagintza industriako 600 urte’, publiko guztiari zuzendutako erakustoki bat prestatzea nahi izan genuen: armak oso gustoko dituen jakintsuarentzat, denbora askoan itxaron behar izan baitzuen hain famatua zen armen bilduma; eibartarrentzat, armen inguruko gauzak ezagutzen zituztenak eta hauetarik askok horretan lanean familiakideak izan zituztenak; ume eta gazteentzat, Eibarko historia hobeto ezagutu eta euren iraganaz harro egoteko... Nik uste dut, konektatu nahi genuen sektore guztiarekin konektatu dugula. Turismo kulturala atsegin dutenek, leku bakoitzeko ezaugarriak zeintzuk diren jakitea gustoko dutenek, oso gustora hartu dute museoa. Gaur egungo diseinu bat egiten saiatu ginen, ez da oso handia ere (bisita bat egiteko ordu bat edo ordu bat eta erdi behar da) eta abar.

- Ezarritako helburuak bete direla uste duzu?

Bai, nik uste dut baietz. Bisita-liburuan ikusten denez, jendea gustatu egin zaiola antzematen da.

- Zer hobetuko zenuke aurrera begira?



Baikor izateko motiboak daudela dio Marina Barrenak Museoaren lehenengo urteurrenean.

Gauza asko, baina gauzak hobetzea baino, orain kontua lanean jarraitzea da. Talde ezberdinentzako unitate didaktikoak prestatu, informazio gehiago eskaini, panel didaktiko gehiago prestatu, eta ekin-tza eta tailer gehiago egin.

- Kanpoko jende ugari hurbildu da museora.

Eibar ez da bereziki turistikoa, baina urte osoan zehar Zaragoza, Asturias eta Euskal Herri inguruko jendea etortzen egon da, museo honetara espresuki etorri direnak gehienak gainera. Bestalde, inguruko leku turistikoetan egonda, Zarautzen eta Donostian kasu, jende asko hurbildu da hona. Ez dugu oraindik talde handien presentzia izan, oraindik zabal-kunde handia behar baitu museoak. Ez daukagu lan talde handia, baina lana bai da ugaria, horrela, denborarekin zabal-kunde horretan lan egitea nahiko genuke. Hala ere, katalanak, andaluzak, ingelesak, hegoamerikarrak, iparramerikarrak, alemaniarrek eta abar izan ditugu bertan.

- Eta herritarrek, nola hartu dute museoa?

Hasiera batean jende asko hasi zen etortzen, herritarrek museo bat itxaroten zeuden, beraz, oso ondo jaso dute. Badago biztanleriaren beste sektore bat, nahiz eta museoarekin oso pozik egon, ez dena bisitan

etorri, uste dutelako beti berdin egongo dela. Eta bai, hemen egotea nahi dugu, baina gauzak aldatzen joango gara, dinamikoagoa egiten, mugimendua ematen, horrela, pieza batzuk aldatu egingo ditugu eta beste berri batzuk ipini.

- Zer da orain museoan eskaintzen dena?

Erakusketa zati bitan dago banatuta. Alde batetik, diskurtso tekniko egongo da, armen garapen teknologikoari buruz hitz egiten duena. Eta bestetik, diskurtso historiko bat dago, Eibarko armagintza industria kontatzen duena, bere eboluzioa.

- Zela da museoan dagoen gauzarik preziatuena?

Esan daiteke pieza bakoitzak duela zerbait berezia. Bata bitxia delako, bestea ‘Star’-ek egin zuen azkena delako... denek dute berezitasunen bat.

- Armez gain, beste ekintza ezberdin batzuk egiteko balio izan du museoak.

Bai, izan ere, museo bat ez da gauzak gordetzeko armairu bat, bizirik mantendu beharra dago. Horrela, data ezber-

“Museoaren bigarren fasea datorren negurako amaituta egotea espero dut”

dinak erabiltzen ditugu gauza konkretu batzuk antolatzeko.

- Orain museoaren zabaltzarekin zabalduzate. Zertan datza?

Esan daiteke 1920ra arte Eibar armagintza-hiri bat zela, baina hortik aurrera, produktuen ezberdintzearekin beste gauza asko ekoizten hasi zen. Horrela, bigarren fase honetan orain arte armagintzaz gain ekoiztu diren beste gauzak jorratuko ditugu. Horrela, Eibarrak izan duen garapena industriaren bitartez kontatzeko balio izango du. Bigarren fase honen diseinua nik egin dut. Horretarako, koadro bat egiten banego moduan egin dut, orokortasunetik xehetasunetara joanez.

- Nolako burutuko dela uste duzu?

Datorren negurako amaituta egotea espero dugu.

- Zer espero duzue bigarren urteari begira?

Ahalik eta bisitari gehien erakartzea espero dugu eta baita eibartar kopurua handiena ere. Hala ere, museo honek zailtasun handi bat dauka, izan ere, armak ez dira oso ondo ikusiak izaten, ez dira ‘politikoki zuzenak’ sektore askoren artean. Horrela, jakin behar da guk ez dugula inolako istorio militarrik kontatzen, inolaz ere, armagintza industriaren garapena Eibarren nolakoa izan den jorratzen dugu.

Armagintzaren Museoak lehenengo urteurrena bete du eta hainbat ekintza antolatu dira hori ospatzeko. Horrela, Iñaki Uriarte arkitekto ospetsua Portalean izan zen atzo hitzaldia ematen. “La industria fabrica del paisaje” izenburupean, paisaia industrialak duen garrantziaz aritu zen, bere begi-ondarea goraiatuz.

Iñaki Uriarte, ARKITEKTOA:

“Industria bizimodu bat da”

- Elbarren etxe berriek eta komertzioak lekua hartu dlote pliskanaka Industriari. Horrek paisala hobetzen du?

Beno, ez da zertan horrela izan. Eibar historia industrial handia duen hiria da, bere nortasunean dago hori. Gainera, paisaia industrialek bere alde ona dute, estetikoki onak izan daitezke. Hiri asko daude Gipuzkoan itxura industrialak dutenak. Legazpiko sarrera, adibidez, alboetan industria duen errepide bat da, baina badu zer bait. Industriak duen alde txarra zarata eta kea da, baina, horrez gain, edertasun eta estetika egoki bat izan dezake, zalantza gabe, eta guzti horrekin batera nortasun puntu indartsu bat. Paisaia mota asko izan daitezke estetikoak. Horrela, badaude harrubi batzuk balore estetiko handiak dituztenak. Adibidez, Markinan erreferentzia horiek ikus daitezke. Paisaia ardogileak ere, txakolina lantzen den eremuetan adibidez, ordena, geometria eta lantzen den forma elementu erakargarriak dira. Logikoki begirada paisaia naturaletara doa hain naturalak ez direnera baino, nahiz eta naturalizat hartzen diren horiek benetan artifizialak izan (lorategiak eta abar). Keak, ekoizpen esfortzu bat bezala, giro berezi bat ematen dio bere inguruari, eta ekoizpen edo aireen arabera zabaldu eta hedatu egiten da. Hortik zehar doa paisaiaren begirune industrialak.



Jose Ronco argazkilararen “Eibar taller-hiria” liburuako irudi bi. Bertan lantegietako arkitektura eta hiriarekin duen harremana aztertzen dituzte ere.

- Paisala industrialak gutxietsi egiten da?


Bai, bai. Nik uste dut horrela dela. Paisaia industrialak ez da behar bezala hartzen, ez zaio behar duen balio ematen.

- Izan dalteke paisala industrialak duten hiriak grisak, ilunak eta tristeak bezala ikusten direlako?

Bai. Gainera, horrelako paisaiak dituzten hiriak lanarekin elkartzen dira eta horrek fabore txikia egiten dio paisaia industrialari, atentzio txikiegia lortuz. Hala ere, zorionez, argazkilaritzak agerian laga du duela urte batzuetatik hona paisaia industrialek balore estetiko altua dutela. Horrela, paisaia industrialak eta argazkilaritza ederki osatu dira eta lehenak balore garrantzitsuak dituela erakutsi du bigarrenak, hiri-paisaia batek izan zezakeen bezala.

- Badago industria-hiriak?

Bai, nik uste dut baietz. Eibarrek baditu, topografikoki leku altuetan jartzen bazara, bariantean adibidez, eraikin industrial altuak, gehiegi nabarmentzen direnak. Hori beste leku batzuetako ezaugarri bat zen lehen, Bilboko itsasadarrean adibidez, tximiniak eta labe-garaiak ziren elementu nabarmenak, paisaia menperatzen zutenak. Era batean, Erdi-Aroko hiria industria-hiria izatera pasatzen da eta hori bi prozesu ematen dira: hesien eraistea eta tximiniekin kanpandorreen altuera gainditzea.



- Nolako neurrian behar du hiri batek industria?

Industria bizimodu bat da, beraz, berebiziko elementu bat dela uste dut. Hiri batek industria izan behar du nahitaez, bestela zertaz biziko litzateke? Beharrezkoa da, beraz.

- Elbar ezagutzen duzu. Zeln iritzi zor dizu?

Ibai baten inguruan hazten den hiria da, horrela, ibai horrek industriaren trakzio-puntu bezala egingo du. Fisionomia berezia duen hiria da, ezaugarri bereziak dituzten eraikinekin. Adibidez, niri atentzioa deitzen didate urratutako lehiok dituzten eraikinek edo polipastoa irretzen den eraikin industrialek, Eibarren beste leku batzuetan baino gehiago ikusten den ezaugarri bat baita. Izkinetan dauden eraikin industrialek, Aurrera eraikina moduan, Lambretta zena bezala. Etxebizitza eta industria konbinazio hori ere oso berezia da, eraikin berean gauza biak egotea. Eibarko hiria, beraz, ‘Eibar taller-hiria’ liburuak aipatzen duen bezala, elementu berezi bat da.

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ C.B.
SAT, TVC, Bideoa
Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IMAR AROZTEGIA

- Barruko atek eta blindatuak
- Oholtza eta parket mugikorak
- Armairu enpotratuak eta neurriak
- Sukalde eta elektrodomestikokoak

Olaso, 15
55-A-1 pabilioia
ELGOIBAR

Tfnoa.-Faxa: 943 53 14 71
Mobilak: 609 054 978 / 646 905 564

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Atek - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

EN Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

CARPINTERÍA NARBAIZA S.L.

Egiturak, barruko eta kanpoko atek, armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapietak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUP SUKALDE ALTZARIAK
* AROZTEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak

metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta pvc-ko aroztegia

ulmar, s.l.
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
I B A R S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behere errehabilitazioa etxetan
Etxetako errehabilitazioa
Itaxadetak errehabilitazioa

AILA
Proiektu- eta Obra zibila

ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Tel. 943 20 04 43 • Faxa. 943 20 14 11
www.casanella.com J. Gisasola, 16 behea

ERREFORMAK BAINUAK
PROIEKTUAK ALTZARIAK
SUKALDEAK DEKORAZIOA

CASANELLA

ESTUDIOS ARRILLAGA

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 - Eibar- ROSARIO 15 - Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbitzeta eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



HORNIKUNTZA



**GARAIONDO
BASTIDA**

hornikuntza industrialak

Telef. 943 12 02 08
Faxa. 943 12 02 12

Barakaldo 9^{an}

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK

**Pintura
Goi mailako
dekorazioa**



Olleria 4, 5. A DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

IGELTSEROAK

**JOSE MARIA IRA-
ZABAL, S.L.**



Urkizu Pasealekua, 7
Tfnoa. 943-120108

*ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA*
www.irazabal.net

PINTURAK



Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zorua
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

SARRILAGINTZA



Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak askatzen ditugu

Arragueta 3

Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

ITURGINTZA

INDA iturgintza



**UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK**

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)

Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



Juan Gisasola, 2
Tel/Fax: 943 20 79 37

Mobilak: 675 70 87 52 / 670 73 61 00

**MARGOLARIAK
GOI MAILAKO DEKORAZIOA**

teen-ajeak



*Comchi Fernandez
Lajun Taldea-ko
begirolea da. Gustoko
du bere lama eta orain
dantza eta musika ez-
berdinak jasoko di-
tuen jaialdia
ditandu prestatzen.*

“Begiralea izateko bokazioa izan behar da”

- Zer egiten duzue begiraleek?

Jaialdia heltzen denerako, neska-mutikoak prestatzen ditugu, abestiak, dantzak eta behar den guztia irakatsiz. Urtean zehar, fitxak eta horrelakoak egiten ditugu eurekin; fitxa desberdinak, bakoitzaren adinaren arabera.

- Eta bertako kideek zer egiten dute?

Hainbat taldetan banatzen ditugu eta, horrela, irakurketa, diktaketak, gehiketak, biderketak eta abar lantzen dituzte. Txikienek, adibidez, jolas didaktikoak egiten dituzte, koloreekin-eta.

- Nola pasatzen dute zuen zaintzapean daudenek?

Ondo, oso pozik egoten dira. Hala ere, askotan barrabasketarako gogoia izaten dute, batzuk beste batzuk baino gehiago, eta ahotsa altxatu behar izaten diezu.

- Zer egitea gustatzen zale ghehen?

Jaialdia egitea. Bertan dantzan eta abar aritzen dira, eta oso gustoko dute hori.

- Nola animatuko zenuke jendea begirale izatera?

Hori gustatu egin behar zaizu, eurekin egotea eta abar. Bokazio piskat ere izan behar dela uste dut.

“Aste Haundixa” ospatzeko proposamena

GASTE Elkarteak, Giro Alaia Suspertzeko Talde Eibartarrak, ‘Eibar-ko 1. Aste haundixa’ ospatzeko nahia agertu du eta aukera hori aztertzen ari da. Horrela, eibartarren aste nagusi hau San Juanen aurreko asteburuan hasiko litzateke Sanpedroetan bukatzeko.

Horrez gain, GASTE-koek goitiberen jaisierak berreskuratzera nahi dituzte. Horretarako, badute aurreikusita ibilbide bat, nahiz eta oraindik ezer erabakita ez izan. Bestalde, kuadrilen jaisiera bat antolatzea ere nahi du GASTE-k, eta formula eta ibilbide ezberdinak planteatu dituzte horretarako.

Elkarteak aztertu dituen ideien artean enbolatu eta jo-koak banatzea dago. Orain arte, biak ekainaren 23aren arratsaldean batera egin izan badira, bi egun ezberdinetan egitera pasako litzateke (San Juan bezpera eta egunean). Aldatuko ez zen gauza bat, bestalde, tanborrada izango litzateke, beti San Juan bezperan egiten dena.

GASTE, bestalde, Gasteiz-ko blusen kuadrila batekin kontaktuan dago beste jai-egun bat antolatzeko. Astea, azkenik, Sanpedroekin amaituko litzateke, lehen Urkizu aldean arrakasta handiarekin ospatzen ziren jaiekin.



HOROSKOPOA

ARIES

Ez da berandu oraindik; Aratoste-erako koko-jantzia egin dezakezu oraindik. Ez zaizula bat ere burura etortzen? Zein imajinario gutxi duzun! Beste gauza batzuetan ideia argiak izaten dituzu ba? Segi pentsatzen!

TAURUS

Taurus maitea, ez daukazu barkamenik. Urtea amaitu aurretik egin zenituen promesa guztiak apurtu dituzu jada! Hurrengoan, badakizu, hobeto zaude ahoa itxita; hitza beteko ez duzula badakizu behintzat.

GEMINI

Lasai, Gemini, zu bezala egon baitira pertsona asko-eta! Eztula, mukiak, sukarra... bai, gripea gurean da dagoeneko eta ia inor ez da libratu hura jasatetik. Paziencia izan eta zaindu. Mismoak egitea ere eskatu dezakezu!

CANCER

Asko maite zaituen jendea duzu inguruan; beraz, aprobeitatu ezazu hori! Gauzak ez dira beti horrela izango, biziak gorabeherak dituelako, eta zuk zorte handia daukazu. Ez duzu kexatzeko motiborik. Altxa burua eta egin irribarre!

LEO

Besteei buruz berba egitea oso gustoko duzu, baina ederki gordetzen dituzu zureak, ezta? Zure bihotza zabaldu beharko zenuke. Horrela, besteak hurbilago sentituko dituzu, euren konfidantza irabaziko baituzu.

VIRGO

Barregarri geratzeko abilezia berezia daukazu, Virgo maitea. Edo zein gauza dela-eta, zerbait egiten duzu ingurukoek barre egin dezaten; edo, bestela, nahi gabe, zerbait gertatuko zaizu besteak barrez lehertaraziko dituztena.

LIBRA

Beharapenetan zenuen diru guztia xahutu duzula? Zurea bai bizioa! Pare bat kartel haundi eta koloretsu ipini eta zuk ipurdia galitzen duzu trapu batzuk erosteko. Agian gaixotasun baten aurrean zaude, adi egon!

SCORPIUS

Urte berria, bizitza berdina. Ezer ez da aldatu. Gauza berdinak egiten dituzu, pertsona berekin ibiltzen zara, helburu berdinak dituzu... Agian, geratu momentu batean eta zer nahi duzun pentsatu beharko zenuke.

SAGITTARIUS

Inguruko guztiak egon dira gaixorik eta zu libratu egin zara. Hala ere, adi egon, edozein momentutan zu izan zaitezkeelako gaixoa, birusa ez baita joan! Bestela, aste ederra pasako duzu, zorionez beate! Zure zenbakia: 10.

CAPRICORNIUS

Urtarrila luzeegia egiten zaizu, ezta? Ba jakizula hilabete amaieran aratosteak datozela... eta zu oraindik koko-jantzirik gabe! Eta aurten, mesedez, orijinalagoa izaten saiatu zaitze, iazkoa penagarria izan baitzen. Ai ene!

AQUARIUS

Martitzenean diruarekin lotutako albistea jasoko duzu eta zure animoa zeharo aldatuko da. Beraz, presta zaitze edozer gauzarako; eta, badaezpada, gorde ondo dirua. Arriskatzen ez baduzu, ez duzu ezer galduko. Ala bai?

PISCIS

Txikitzen ez zitzaizun nagusiak zurekin gaizki portatzea gustatzen, ezta? Zergatik zara, orduan, hain krudela zu baino gazteagoekin? Besteren batek berdina egin beharko lizuke eta haurtzaroan bizitako hori berriz jasan. Ikasteko.

Gandhiren bidea jarraituz

60 urte pasa dira Gandhi hil zenetik eta bere itzala luzea dela ikusten da. Indian iraultza baketsua burutu zuen Gandhik, munduak harridura handiarekin ikusi zuen iraultza. Urtarrilaren 30ean hil zen Gandhi 1948an; horrela, La Sallekoak, urteroko moduan, Bakearen Aldeko Astea ospatzen ari dira urtarrilaren 14tik 30era.

La Salle Azitain eta La Salle Isasiko neska-mutiek sentsibilizazio jardunaldi batzuk burutu dituzte Bakearen Aldeko Astea iritsi aurretik, horrela, tolerantzia, elkartasuna, besteenganako begirunea (kultura, etniak...) eta justiziaren aldeko lana bezalako kontzeptuak landu dituzte benetako bakea lortu ahal izateko. Horretarako erabili dituzten baliabideak honakoak dira: gogoe-



Urtarrilaren 24an eta 30ean egingo dituzte jaialdiak La Salle Isasik eta Azitainek, hurrenez hurren.

tak, ipuinak, ikasleek egindako irrati saioak, 'Nobel Saria'-ren hautaketa, etab.

Egindako lanek jaialdietan izango dute euren gorenena. Izan ere, bertan ikastetxeko ikasgela guztiak egindako lan adierazgarriren bat aurkeztuko dute. La Salle Azitainen urtarrilaren 30ean 11.30etatik aurrera egingo da jaialdia. La Sa-

lle Isasik, bestalde, hilaren 24ean jasoko du jaialdia 15.45etatik aurrera.

Zilarrezko Q-a

La Salle Isasi Ikastetxeak kalitatea adierazten duen Zilarrezko Q-a lortu du. Eusko Jaurlaritzak aintzat hartzen du, horrela, ikastetxea Europako EFQM kudeaketa ereduan sartuta dagoela eta ikastetxeko esparru guztiak etengabeko hobekuntza daukatela.

La Salle Isasi, beraz, errekonozimendu hau jasotzen duen Deba Beheko Haur eta Lehen Hezkuntzako lehendabiziko ikastetxea da. La Salleko arduradunek domekan Barakaldo-ko BEC-en jasoko dute aipaturako agiria.



Urte berri on

Urte bat amaitu, beste bat hasi. Hori da gure bizitzako gakoa: zerbait bukatzen denean beste zerbait hasi behar dugula.

Hori dela-eta, hona naturakizue urte berriari eskatu dizkiozuen nahiei, asmoei buruz hitz egiteko. Eskakizun hori oso arrunta da urte berri bat hasten dugunean. Batzuek erretzeari lagatzeko nahian, beste batzuek kirola egitekoan, edota dieta famatu horietako bat haste-ko, ikasi... nahi duzuen a idatzi dezakegu. Egia esanda, asmo horiek bidezkoak dira, gure bizitzarako aldaketa nahi ditugula islatzen baitute. Baina, betetzen al ditugu nahi horiek? Agian horren atzetik dagoen galdera zera da: zer gertatzen zaigu gure buruari aldaketa horiek proposatzen dizkio- gunean?

Batek esan zuen benetako helburua ez dela helburu bera, baizik eta bidean lortzen ditugun erronkak. Horrekin esan nahi dizuet asmoei baietz, baina lortzeko modukoak, errealak eta epe motzerako izan behar direla... bestela datorkiguna frustrazioa izango da. Berez ez da zerbait txarra. Frustrazio horrekiko dugun tolerantzia maila, hain xuxen ere, da garrantzitsuenak.

Sasoi hauetan askotan entzun edota irakurtzen dugu gure gazteek ez dutela frustraziorako tolerantziarik, berehalako satisfazioa dela euren motibazio bakarra. Hori entzuteak, benetan, kezka sortzen dit, zeren eta gizarte honetan frustrazioa eguneroko sortzen zaigu edozein arrazoiengatik. Ondorio moduan, lehen aipatu dudana: asmoei bai, baina nolakoak izan behar dira? Bete ahal izateko? Edota datorren urtean berriro proposatzekoak? Ondo izan. Hurrengora arte.

Nerea Zuazua
(PSIKOLOGOA)



SILBIA HERNANDEZ



Beraetxe aktorea Instian

Gabonetako oporren aurretik, abenduaren 20an, Iñaki Beraetxe aktorea Ignazio Zuloaga institutura joan zen HNB-ko aduradunek antolatutako hitzaldia ematera. Lehenengo mailako ikasleekin egon zen eta, besteak beste, ikus-entzunezko lanetan gustura dabilela kontatu zien; bere eguneroko bizimoduaz ere jardun zuen. Iñigo Kintanarekin batera zuzendutako eta orain gutxi saria jaso zuen laburmetraia, 'Itzalak' erakutsi zien ikasleei eta, euren berbetan, "solasaldia oso atsegina eta interesgarria egin zitzaigun. Beste bat arte, Iñaki".

Cuturak beste urte bi jarraituko du Arraten

Eibarko Asobal Ligako taldeko kapitaina Arrate-rekin akordio batera iritsi da 2010eko ekainera arte taldean jarraitzeko. Jokalaria 2003/04 denboraldia iritsi zen Arratera eta, bosgarren denboraldia betetzen duen honetan, jokalaria funtsezkoenetakoa izaten jarraitzen du. 32 urte ditu eta, lesioekin arazoak izan baditu ere, aurten denboraldi dotorea dihardu egiten.

1. Nazional mailako Arratek, bestalde, neurketa oso zaila



izango du asteburu honetan, Adelma Sinfin liderraren zelaian jokatu baitu; azken jardunaldian 36-32 irabazi zion Senda Vivari Ipuruan.

Pelota Astelenan, Azitainen eta Ipuruan

Pelotako binakako txapelketa nagusiak jardunaldi berria izango du Astelena frontoian eta, oraingoan, Titin III.ak eta Laskurainek osatzen duten lidergoan dagoen bikoteak Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek osatutakoa izango du aurrez-aurre. Partidua, ohikoa denez, jaialdiko bigarrena izango da eta, aurretik, Uriarte-Eulate eta Cabrerizo-Goñi III.a bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Jaialdia amaitzeko, Larralde eta Arizmendiren arteko buruz-burukoa ikusi ahal izango dute zaletuek.

Deportiboko ordezkarien partidua

Klub Deportiboko pelotariak asteburu betea izango dute oraingoan.



Horrela, gaur bertan, arratsaldeko 20.15etan hasita, Euskal Ligako partidua bi jokatu dira Ipurua kiroldegian. Lehenengokoan, 22 urtetik azpiko mailakoan, Labaka eta Egañak Salaberria eta Larrinaga Elorrioko ordezkariak egingo diete aurre; eta, jarraian, Bengoetxeak Lezamako Aurtenetxeren aurka neurtuko ditu indarrak Ohorezko mailako buruz-burukoan.

Azitaingo San Anton jaietako egitarauaren barruan, beste partidua bi izango dira jokoan zapatu goizean poligonoko Altzubarren frontoian. Deporreko zortzi pelotari izango dira, nor baino nor, 11.00etan hasiko den jaialdian: Zubizarreta/Unamunzaga vs Hidalgo/Barrón eta Arrillaga/Madariaga vs Karmena/Agirrebeña. Sariak banatuko dira amaieran.

Escuderia Eibarkoen auto denboraldi hasiera Liérganesen


Roland Holkek eta Jorge Beorlegik osatutako taldeak 5. postuan amaitu zuen Liérganeseko Rallyan, 1975eko Seat 127arekin, eta Antonio Cancelo eta Fernando Beorlegi taldekideen ekipoa 14. postuan sailkatu zen, azken hau Seat 124 batekin. Eguraldia kaxkarrak izan zen eta orientazioak garrantzi handia hartu zuen probaren sailkapena erabakitzeko. German González eibarrak, Jesus Fernández bilbotarraren Mini autoan, bestalde, 11. postua lortu zuen zorrotasun handiko lasterketan.



Holke eta Beorlegi.

Rekreativorentzat Gabonetako areto foballeko Kopa

Rekreativo de Juergak 5-1 irabazi zion Urkikolokoiari XIV. areto-foballeko Gabonetako Kopako fasearen finalean. Euren atzetik sailkatu ziren Tupi-Azpi -3. postuan- eta Elur -4.ean-. Finalerdietan, Urkikolokoiak 5-2 irabazi zion Tupi-Azpiri eta Rekreativok 4-2 Elu taldeari. Guztira Eibarko txapelketan parte hartzen duten hamabi taldeek jokatu dute Gabon Kopa hori eta, atsedena hartu aurretik, XOK taldea zihoan sailkapeneko gorenean, E-90ren aurretik.



URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



MEKANIKETARAKO
TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Eibar postu beroen bila

Eibar KE-k Sporting jasoko du domekan 12.00etan (Canal +) Ipuruan. Joan den astean bigarren postuan dagoen Numantziaren aurka etxetik kanpo berdindu (1-1) ostean, Manixen mutilek eskura dituzte lehenengo postuak. Horrela, hirugarren postuan dauden asturiarrek, garaituz gero, igoe-ra postuetatik oso gertu ipiniko litzateke talde armagina.

Sportingen aurkako neurketa klubari laguntzeko 'egun erdi' bezala hartua izan da. Horrela, abonatuak sarrerak eskuratu behar izango dituzte partidua ikusi nahi



izanez gero. Hurrek 5 euro eta beste guztiek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta sarrerak gaur 20.00ak arte egongo dira salgai klubaren bulegoetan.

Ertzaintzak, bestetik, arrisku handiko neurketatza jo du domekako, beraz, hainbat aldaketa izango da harmailetan. Mendebaldeko Goi Tribuna eta Mendebaldeko

Gol Tribuna Beheko (mojena) abonatuak, erdi, ipar eta eki tribunetan jarri beharko dira. Horretarako, eurek aukeratu ahal izango dute jarlekua, sarrera jasotzeko orduan jakinaraziz.

Waterpolisten garaipena Barakaldon

Hainbat proba egiteko baliatu zuten Barakaldoko partidua Urbat-Urko-tronikoko jokalaria; atsedendaldira 3-7 irabaziz zihoazen eta amaieran 8-14 nagusitu ziren eibartarrak. Asteburuan

maila handiko waterpoloak ikusteko aukera izango da Ermuko kiroldegian, Urbatek euskal waterpoloaren aitzindaria den Master Askartza jasoko baitute (bataz beste 40 urteko jokalaria dira, maila handikoak).

Alde estuak foball-zaletuan

Lau taldeen arteko lehia bihurtu da foball-zaletuen txapelketaren lidergoa: Teknografik eta Durango 32 punturekin berdinduta daude goi-goian, eta puntu bira dituzte Azitain eta Jose Autos. Tankemans eta Aguiñaspi, bestalde, liderrengandik hamar puntura daude eta txapelketari agur esan diotela dirudi, hasieratik hona jaitsi egin baitute erritmoa. Azken jardunaldian, goiko laukotea garai-lertera ateratu zen partidua guztietan, garaipena batzuen kasuan beste batzuen bano justuago izan arren: Durangok 5-1 irabazi zion Azkenari, Teknografik 4-1 Akatsi, Jose Autosek 5-1 EzDok-i eta Azitainek doi-doi 1-0 Aretori. Bihar eta etzi jokatu beharreko jardunaldi berriaren karteldegia honako hau da: biharkoan, Sporting vs Aguiñaspi (08.30etan), Txoko vs Eitek (10.00etan), Tankemans vs EzDok (11.30etan) eta Jose Autos vs Akats (13.00etan); domekan, bestalde, Teknografik vs Azkena (09.00etan), Durango vs Areto (10.30etan) eta Azitain vs Vivaldi (hau ere 09.00etan, goiko zelaian).

ingeniaritza
imh

IMH Ingeniaritza Eskola

Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

- Ingenieria izan eta ardura posluaren aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- atzeran praktikak egin
- Boloniako Itunean indarrean dagoen titulu europiar ofiziala lortu

ate irekiak

urtarrilaren **26**an

goizeko **11:00**etan

... zatorz IMH Ingeniaritza eskola ezagutzera

zure txanda!

Informazio orok
IMH INGENIARITZA ESKOLA
Arlan Auzoa, 1
20870 ELUGIBAR, Urdulizkoa
Tel: 943 744 132
E-mail: ingeniaritza@imh.es
www.imh.es



Ikasten ala lanean?
Ikasi eta gainera lan egiten dut.

ces UNIVERSITAT **ces** FRANZESKO CESI
Ingeniaritza Titulu ofiziala



Olentzero txapelketa judoka txikientzat

Urteroko moduan, Kalamua judo klubeko txikiek Olentzero torneoan hartu dute parte eta benjamin-aurreko mailan urrea, zilarra eta brontzea eskuratu zuten Marcos Mateok, Markel Simonek eta Jon Alberdik hurrenez hurren. Benjamin mailan lau talde egin ziren eta eibartarrak talde guztietan nagusitu ziren: Unai Arizagak urrea jaso zuen, Eneko Errastik zilarra eta Ander Muñozek eta Markel Zendoiak brontze bana eraman zuten; bigarren taldean Markel Perezek, Eneko Ramonek eta Asier Sebastianek urrea, zilarra eta brontzea jaso zituzten hurrenez hurren; hirugarrenean, Beñat Gomezek, Jon Sanchezek eta Alen Lopezek urrea, zilarra eta brontzea eskuratu zi-



tuzten hurrenez hurren; eta laugarrenean Pablo Valle, Unax Simonek eta Iñigo Ugartek gauza bera egin zuten. Alebin mailan urrea Nekaren Muguruzarentzat izan zen, zilarra Eneko Loresentzat eta brontzea Julen Ramonentzat.

Herriko rugbilariak lokatzean nagusi

Bederatzi puntuko alde ateratzen dio Eibar Rugby Taldeak hirugarren sailkatuari eta, igorako promozio faseari begira, tamainako alde izan daiteke. Asteburuan Lekarotzen Baztanen aurka jokaturako neurketan, lokatza izan zen nagusi

(beheko argazkian ikusi daitekeenez) eta markagailu oso murrizta erakusten zuen partiduaren amaierak. 5-7 irabazi zuten eibartarrek norgehiagoka gogor hori, baina rugby partidu baten oso arraroa den 0-0koa ikusi ahal izan zen atsedenal-

dian. Jokinen entseguak eta Gaizkaren eskutik etorritako transformazioak eman zizkioten puntuak Eibar Rugby Taldeari. Gaztedi hirugarren sailkatuak Zaragozako Fenixekin 15-18 galdu eta gero, urrutirago geratzen da sailkapenean eta Atletico San

Sebastian eta eibartarrak dira, liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan, igoera fasean parte hartzeko faboritoak.

Bigarren taldeak irudi polita eman zuen Gernikan, nahiz eta 25-15 galdu; eta kadeteek 3-21 galdu zuten Gaztedirekin.



Lekarotzen jokaturako partiduan eibartarren jantzien gorri-urdin kolorea desagertzen joan zen amaieran ia ikusezin bihurtzeko.

SASKIBALOIA: Katuk irabazi, Novamark-ek galdu

Katu-Kale K.A. 1173-k Irungo Bas-koplastikari irabazi zion Ipuruan jokaturako norgehiagokan (50-43) eta hirugarren garaipena jarraian lortu du. Losada izan zen saskiratzaile onena, 10 punturekin. Novamark-ek, bestalde, ezin izan zuen Mondragon Unibertsitatea lide-rrekin Arrasaten eta 52-45 galdu zuen. Azurmendi izan zen puntu gehien lortu zituen eibartarra, 16rekin. Hurrengo neurketa hilaren 26an izango dute biek.



Iker González (Novamark).

Berdinketa eta garaipen bi areto-foballean

Gipuzkoako 2. mailako ligan, Ken-cik 4na berdindu zuen Plastigaurren zelaian (Garridok gol bi eta Agirrek eta Enekok bana). Jubeniletan, Relojos Mondainek 1-3 irabazi zuen Zaurutzen; eta kadeteetan, Debabarrenak 3-10 Goierriren zelaian. Bihar partidu bi jokaturako dira Unibertsitate Laboralean: 11.00etan, Debabarrena-Arizmendi; eta 12.20etan, Mondaine-Aloña Mendi.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai 4-6 behea, ezkerre

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 20 10 95 Fax: 943 20 25 64



SANTA MARINA
ASISTENCIA DOMICILIARIA

Nagusien eta umeen zainketa

Egigurentarren, 12 - behea (EIBAR)

943-530699

Lagun Taldearen ikuskizuna

Lagun Taldeak, azken urteotan moduan, funtzio bi izango dituen lana eskainiko du. "Hotel Lagun Taldea 10 Estrellas" izeneko lana bihar eta hurrengo zapatuan taularatuko dute, 17.30etatik aurrera, Unibertsitate Laboralean. Jaialdia doanekoa izango bada ere, sarrera aurretik eskuratu beharko da.



LEIRE ITURBE

Field Target saioa Armerian

Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak eta Euskadiko Field Target Elkarteak jardunaldi berezia antolatu zuten aurreko domekarako: Armeria Eskolako frontoian tiro-hotsak nagusitu ziren, metalezko diana toleskorren aurkako tiro modalitatea ezagutzera emateko antolatutako saioan. Target delakoa ezagutzera emateaz gain, horrelakoekin armagintza-industriarekin lotutakoei bultzada ematea bilatzen dute antolatzaileek.

Andra artisten erakusketa prestatzen

Urteroko moduan, Arrate Kultur Elkarteak Eibarko andrazkoek egindako artelanen erakusketa zabalduko du martxoan,

Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren inguruan. Erakusketa martxoaren 7tik 16ra egongo da martxan Topalekuan eta artelanen bat erakutsi nahi duten emakumeei, profesional zein zaletuei dei egiten diete antolatzaileekin harremanetan jartzeko. Emakume bakoitzak artelan bakarra erakutsi ahal izango du, nahi duen teknika, gaia eta modalitatea aukeratuta. Interesa dutenek otsailaren 20a baino lehen mezua laga dezakete 943200580 telefono zenbakian (Elisabet) edo 617747569 telefonora deitu (Mari Fran).



AMARA JAIO

Galiziako Etxearen marrazki lehiaketa

Galiziako Etxeko lokalek XIII. Gabonetako Marrazki Lehiaketa jaso zuten zapatuan. Maila bitan ezberdindu zen lehiaketa, alde batetik, 6tik 9 urterako umeek osatzen zutena, eta bestea, 10 urtetik 12 urtera. Parte hartzaile

guztiek jaso zuten opariren bat, baina hiru marrazki hobeenek beste sari extra bat eskuratu zuten. Gainera, 10 urtetik 12 urterako mailan irabazi zuen marrazkia gabonetako postal moduan erabiliko du Galiziako Etxeak 2008an.



LEIRE ITURBE



UNAI ARTEIXE

Eskultura zeramika ikastaroa

Portaleak eskultura zeramika ikastaroa jasoko du otsailaren 5etik 28ra arte. Ikastaroa 8 saiotan banatzen da, martitzen eta eguenetan emango direnak, euskera eta gazteleraz. Horrela, talde bi egongo dira: bat 17.00etatik 19.00etara eta bestea 19.00etatik 21.00etara.

Ikastaroaren helburua buztina eta suaren bitartez errealismotik abstrakzioa joatea da. 16 urtetik gorakoei dago zuzendua eta Eibarren errol-datuta dauden pertsonen lehenotasuna izango dute. Ikastaroaren prezioa, bestetik, 35 eurokoa izango da eta izena Pegora-n eman beharko da urtarrilaren 14tik 25era.

Laburrak

HELDUEN IRAKASKUNTZA

Helduen Irakaskuntza Zentruak 2. lauhilabeteko matrikulazioa zabalik dauka. Urtarrilaren 25era arte eman daiteke izena, 15.00etatik 21.00etara bertara joanda (Isasi, 39) edo 943208856 telefono zenbakira deituta. Eskaintzen dituzten ikasketen artean, besteak beste, alfabetizazioa, atzerriarrentzat ikastaroak, Bigarren Hezkuntza Graduatua lortzeko ikastaroak, 25 urtetik gorakoentzako Unibertsitaterako sarrera prestakuntza eta informatika, ingeles eta euskera ikastaroak daude.

TXISTULARIEN BLOGA

Usartza Txistulari Taldeak helbide elektronikoa zabaldu du, jendeak bere iritzia eta proposamenak euri helarazteko aukera izan dezan: usartza.froa@blogspot.com. Hor jasotakoak www.usartzatxistu.blogspot.com helbidean irakurtzeko aukera izango da eta, horrez gain, norbaitek txistuarekin harremana duen zerbait (argazkiak, testuak, programak...) izanez gero, helbide horretara bidaltzea eskertuko lukete.



Basarrixa eta kalia

Urki, Ipurua, Amaña, Legarre, Matxarixa, Urkizu, Azitxaiñ: basua, kalia ala basarrixa? Sasoi baten etxiak be izan dira, behintzat —baten batzuek oin be bai— eta gaurko egunian auzuei-eta izena emotera etorritxak; asko basarrixon lurretan edo inguruetan zabal dutako kale barrixak dira, eta Eibarren kasuan, ixa herri oso bat. Geu bixok be, esaterako, bata Ubitxakua eta bestia Txaltxa Zelai parian bizi garan kalekumiak gara...

Aurten Aratostiak sekula baiño goixago datoz. Beste iñoiz eskribidu izan dogu jaixari jaixarena emon eta jaixa norberak ipintzen jakitzaren gaiñian. Kezkakuok, lehendik, dantzan einda gaoz bai kalia, bai kale-azunietan, edo Arrate gaiñian be bai, eta oiñ, hill honetxen 26xan, basarri-basarri ibiltzeko plana dakagu: dantzan eiñ eta zaria pasau gero. Sarritxan gauzak eitxeko, aitxakixia baiño besterik ez da bihar, eta guk, lehelen-lehelen, gogua dakagu. Hortik aurrera, karnabalak dira segiduan, beste leku batzuetan antzerakua eitxen ditzue, eta honuzkerio berandu izan arren Ubitxa basarrixa ezagutu ahal izateko —nun bertako amandre Jovita zanak pipan erretzen ei eban bentana onduan— gu garan kalekumiok Lazareto, Sumendixa, Arikitxa, Mendigoitxi eta abarren gizartera aillegatzia nahi genduan. Bai gizartera eta baitxa ondiok horri gizarriorri eusten detsen gizonezko eta andrakume bakoitxarengana. Eta aurreneko urtia dan partetik, mesedez, barkatzekuak suertau daki-guzela txarto urtetzen deskuenak.

**Oier Araolaza
Enrike Izagirre**

80 kaxa eta ustekabeko bisitak urtea hasteko

Mari Jose Telleria kultura zinegotziak eta Juan Ortegak urtarri-leko antzerki eskaintza aurkeztu zuten martitzenean Portalean. Markeliñe elkartearen 'La vuelta al mundo en 80 cajas' eta Txaloren 'Una visita inesperada' antzezlana antzerki jardunaldien aurretik aurkeztuko diren azken lanak izango dira.

Juan Ortegak aipatu zuen bezala, "lehen mailako eskaintza da hau". Horrela, urtea "era indartsuan" hasten dela aitortzen du, "aktore euskaldunekin, aurpegi ezagunekin eta umeei zuzendutako antzerkiarekin, baita ere".

Markeliñeren antzerkia hainbat urte darabil taula gainean antzeztua izaten eta arrakasta handia izan du sari ezberdinak jasoz. 'La vuelta al mundo en 80 cajas' bihar antzeztuko da Coliseoan 18.00etatik aurrera eta bere prezioa 4 eurokoa izango da.

'Una visita inesperada', bes-tetik, urtarrilaren 25ean egongo da Coliseoan 20.30etatik aurrera. Bere prezioa 18 eurokoa da eta sarrerak www.kutxa.net helbidean edo Coliseoan funtzio egunetan edo antzezpene baina egun bat lehenago eskuratu daitezke.



Juan Ortega eta Mari Jose Telleria aurkezpen egunean.

EKHI BELAR

Aratosteerako makilaje tailerra

Urtarrilaren 31tik otsailaren 5era bitarte ospatuko diren Aratoste giroan sartzen joateko makilaje tailerra antolatu du Arrate



AMAIA JAIO

Kultur Elkarteak. Tailerra urtarrilaren 26an egingo da, 17.30etatik aurrera Kultuko lokaletan (taberna gaineko 1. solairuan) eta azalpen guztiak Alain Domínguez Ermuko aktore eta zuzendariak emango ditu. Partehartzea doakoa izango da eta, antolatzaileen berbetan, "bertaratzen direnek begietarako arkatx beltza eta ongi pasatzeko gogoia besterik ez dute ekarri behar". Tailerrean, kokojantzia makilajeaz osatzeko argibide, proposamen eta aholkuak emango dituzte: besteak beste, apain-apain edo itxura beldurgarria hartzeko aurpegia eraldatzeko sekretuak (begia nola handitu, itzalen erabilera...) azalduko dituzte.

Giro ederra Gureak-eko bazkarian

Auzokoak Urkizuko elkarte gastronomikoen elkarteak zapatuan eskaini auzien urteroko bazkari berezia Gureak lantegikoei. Bazkarira 100dik gora lagun joan zen eta, horregatik, Urkusu-Gain eta Erdi-Bana sozietateen artean banatu behar izan zituzten gonbidatuak. Bapo bazkaltzeaz gain, ederto pasatu zuten neska-mutilek eta, gainera, opariekin bueltatu ziren etxera. Bazkaria urtero egin ohi dute, Errege eguna pasatu eta egun batzutura, Auzokoak elkarteko bazkideek pozarren egiten duten lanari esker eta oso egun berezia izaten da gonbidatuentzat.




LEIRE ITURBE

Maitasunari buruzko kurtsoa

Pagatxa emakumeen elkarteak antolatuta 'Maitasunaren soziologia' izeneko kurtsoa hasi zen astelehenean. Jose Luis Vazquez Domonechek zuzentzen du andretxean ematen den kurtsoa. Klaseak astelehen eta egunetan izaten dira 17.00etatik 19.00etara eta bere prezioa 10 eu-

rokoa da. Informazio gehiago lortu nahi izanez gero Andretxeara zuzendu (Zezenbide 9, baxua, 943100828). Pagatxak, bestalde, urtarrilaren 22an Portalean arratsaldeko 17.00etan urteroko bilera orokorra egingo dela gogoratzen die euren kideei, gainera, hainbat opari banatuko dira bertan.



Peio Rubio 'Illunabarrian'

**Urtarrilaren 23an Peio Rubio nekazarla izango da ..eta kittol-
ren lokaletan 'Illunabarrian' programaren barruan.** Rubio eko-
nekazaritzaz arituko da, gai honen nondik norakoak azalduz eta
bertara hurbilduko direnen zalantzak argituz.



Agurtzane Sololuze Topalekuan

**'Topalekuak' Agurtzane Sololuzeren margo erakusketa jasoko
du domekara arte.** Artista honen lanak urtarrilaren 11tik daude
ikusgai eta beste egun pare bat gehiago egongo dira 'Topale-
kuan' bertara hurbildu nahi duenarentzat. Astegunetan 19.00eta-
tik 21.00etara sartu ahal izango da erakustokian margoak ikuste-
ko. Asteburuan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik
21.00etara egongo da zabalik 'Topalekua'.



Fernando de Vicente Portalean

**Portaleak Fernando de Vicenteren erakusketa ikusteko atekak
ireki zituen urtarrilaren 11n.** 'Bartleby' izenaren pean, Fernando
de Vicentek kolore biziak, ilusio optikoak dituzten forma geome-
trikoa dituen lanak eskainiko ditu otsailaren 3a arte martitzenetik
domekara 18.30etatik 20.30etara. Fernando de Vicente 'Beitu
Galeria'-ren bultzatzaileetarikoa da. Ekimen honek erakusketa
alderdiak lantzen ditu batipat, eta lan grafiko eta irudi ekoizpena-
rekin lotutako gauzak jorratzen ditu.

*Meditazioaren inguruan
jardungo du Juan
Larreategi datorren
egunean, hilaren 24an,
Euskadiko Kutxak
Julian Etxeberrian duen
lokalean. Hitzaldi
praktikoa 19.30etan
hasiko da eta edozeinek
du bertan parte hartzeko aukera.*



JUAN LARREATEGI, SKHM-REN PARTAIDEA:

"Meditazioak apala izatea eskatzen du gauzak onartzeko"

**- Meditazioak badirudi beste
mundu edo espazio batera
garamatzala. Nolaz hasi zinen
hori inbestigatzen?**

2005. urtean hasi nintzen ikas-
ten eta, ordutik, 24an emango
dudan saioaren antzerako asko
eman ditut. Hiru zati izango ditu:
lehenengoa, azalpenak emateko
eta galderei erantzuteko; biga-
rrena ariketa praktikoa beteko
du; eta hirugarrena ariketa hori
komentatzeko erabiliko dugu.

**- Zenbat denbora eramaten
du horrelako salo oso batek?**

Bakoitza 10-15 minutukoa
izan daiteke. Baina, egoera eta
jendearen erreakzioaren arabe-
ra, zenbateraino inplikatzeko den
bat... ordu erdi iraun dezake za-
ti bakoitzak. Aurrekoan saioa
egin genuen Amandrian, Mari-
na Caballerorekin-eta; ordu erdi
pasatxoa behar izan genuen.

**- Kartzeletako boluntariado-
tzan diharduzu urteetan. Me-
ditazioarenak arrakasta izan
du espazio horretan?**

Kanpoan baino gehiago, oso
desberdina delako bertako
egoera. Hiru orduko saioak ere
izan ditugu kartzeletan: den-
boraren erdia lana bada ere,
beste erdia atsedinari eskaini
diogu horrelakoetan.

**- Kartzeletan, orduan, irekia-
go daude halako esperien-
tziak?**

Kartzelako jendeak ez du-eta
beldurrik! Orduan, lan-kalitatea
hobeagoa da egoera horretan.
Nik ez dut inor behartzen.

**- Azken finean, zer da bila-
tzen dena halako saloekin?**

Ni ondo egotea: gaixorik
nintzela sartu nintzen. Interne-
ten dut 2004tik 2006rainoko
esperientzia, tallerretan-eta
parte hartu dutenek idatzita-
koa. Ia gehienek ordubetea
nabaritzen dute aldea.

**- Saloan zer gertatuko den
galdetuko banizu...**

Nahi baduzu, esango dizut.
Baina hobe da ez jakitea zer
gertatuko den, energia galtzen
baita horrela; hobe da espe-
rientzia ezagutzea.

**- Zer harreman du medita-
zioak yoga eta reikiarekin,
esaterako?**

Ez oso ona; aurkakoak direla
esango nuke. Hemen ez duzu
buruarekin sentitzen, sentimen-
duekin baizik. Urdailean ematen
da prozesua eta apala izan behar
zara gauzak onartzeko: emaku-
meei gorrotoa kostatzen zaie
gehien onartzea eta gizonezkoek
beldurra, emozio horiek ez ate-
ratzeko programatuta baikaude.
**- Zer erantzun espero duzu
egueneko salo horretarako?**

Euskal Herrian oso jende gu-
txi dago sartuta (lau gaude
guztira); Madrilen, Bartzelonan
eta Andaluzian indar gehiago
du meditazioak. Ez dakit zen-
bat lagun etorriko diren, baina
kalitatea lehenesten diot kanti-
tateari. Eta ariketa laburren eta
azalpen luzeen aldekoa naiz.
Reikia espiritualetagoa da eta he-
men, bestalde, emozio prima-
rioak ikusten dira: horiek des-
kargatzea ez da gauza morala.
INFORMAZIO GHEGORAKO: <http://perso.wanadoo.es/health/calendar.htm/>

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea....943 70 07 99
 Debegesa943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola.....901 20 20 20
 Naturgas.....902 12 34 56
 DYA Larrialdia...943 46 46 22
 Gurutze Gorria....943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren.....902 54 32 10
 Pesa.....902 10 12 10
 Taxiak943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapateria: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapateria: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERNUA-MENDARO. Asteleheneretik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

EGUZKITSUA

BIHAR egun eguzkitsua izango da, temperatura epelarekin. Hegoaldeko haizea ahula ibiliko da barnealdean eta ekialdeko haizea kostan. Hala ere, behe-lainoa sortuko da, eta barnealdeko bailara batzuetan garbitzea kostatuko zaio. **DOMEKARAKO** ez da aldaketarik espero.

18 barixakua

SAN ANTON JAIK

20.00.- Untzaga abesbatzaren emanaldia. Azitainen.

19 zapateria

SAN ANTON JAIK

10.00.- Pelota jaialdia (Altzubarren frontoian). San Anton Xake Lehiaketa (gasolindegi pareko parkeko arkupeetan). 10.30.- Mountain bike marxa. 11.30.- V. Tiro Txapelketa (karabina neumatikoaz). Parkeko arkupeetan. 12.00.- Umeen-dako jolasak. Parkean. 13.00.- Sari banaketa. Azitainen.



MAHAI-JOKOAK

16.30.- 'Flor' txapelketa. Kantabriako Etxean.

LAGUN TALDEA

17.30.- 'Hotel Lagun Taldea 10 estrellas', Lagun Taldearen ikuskizuna. Sarrera doan, gonbidapenarekin. Hezkuntza Esparruan.

ANTZERKIA

18.00.- 'La vuelta al mundo en 80 cajas', Markeliñe antzerki taldearen eskutik. Sarrera: 4 euro. Coliseo antzokian.

20 domeka

SAN ANTON JAIK

11.00.- Meza. 12.00.- Euskal dantzak, Kezkaren eskutik. Umeentzako jolasak, bertsolariak, musika, euskal produktuen dastaketa txosna eta erakusketa kulturala. 13.30.- Joandako guztien artean 20 otarren zozketa. 14.30.- Bazkaria Azitain jatetxean, Agirrebeña Anaien musikaz girotuta. Nagusien ordezkariet omenaldia.

DANBORRADA

13.00.- Cielito Musika Bandaren eta Usartza Txistulari bandaren eskutik, Eibarko Danborradaren sekzio bik, kupelen konpainia batek eta metalen talde batek lagunduta. Sarrera doan. Astelena frontoian.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'La brújula dorada' (Zuz: Chris Weitz). Sarrera: 2'80 euro. Amaña kultur aretoan.

PELOTA

17.00.- Uriarte / Eulate vs Cabrerizo / Goñi III.a. Titin III.a / Laskurain vs Bengoetxea VI.a / Patxi Ruiz. Laralde vs Arizmendi.

22 martitzena

IKASTEN

10.00/12.30.- Hitzaldia: 'Sótanos del mundo'. Hitzalaria: Ander Izagirre. Hezkuntza Esparruan.

GURASOAK MARTXAN

19.00.- Hitzaldia: 'La relación de la agresividad con la autoestima de nuestros hijos e hijas'. San Andres ikastetxean.

EIBAR ZINE-KLUBA

21.00.- 'Alta sociedad' (Zuz: Martha Fiennes). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

23 eguaztena

KZ-GUNEA

11.00/13.00.- 'Banka elektronikoa' ikastaroa. Kz gunean.

ILLUNABARRIAN

19.00.- Hitzaldia: 'Ekonekazaritza'. Hitzalaria: Peio Rubio. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

GURASOAK MARTXAN

19.00.- Hitzaldia: 'El vínculo emocional'. La Salle Isasi ikastetxean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsaioa. San Andres elizako lokaletan.

24 eguena

KZ-GUNEA

11.00/13.00.- 'Banka elektronikoa' ikastaroa. Kz gunean.

IKASTEN

11.00/13.00.- Hitzaldia: 'Psicología positiva I'. Adinduren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

BAKEAREN ASTEA

15.45.- Bakearen Astea. Jaialdia. La Salle Isasin.

EGO-IBAR ZINE-KLUBA

17.30 eta 21.00.- 'La suerte de Emma' (Zuz: Sven Taddicken). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- Hitzaldia: 'La familia: estilos de crianza, vida e interrelaciones (estilos educativos)'. Hitzalaria: Garbiñe Agirrezabalaga pedagogo. Portalean.

HITZALDIA

19.00.- Meditazioa. Hitzalaria: Juan Larreategi. J. Etxeberriako Euskadiko Kutxan.

erakusketak

Urtarrilaren 20ra arte

Agurtzane Sololuzeren
‘Seina’ margoak.
Topalekuan.

Urtarrilaren 31ra arte

Asier Garinen ‘Egipto’
argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.

Jose Luis Martinezen
argazki erakusketa.
El Ámbigú tabernan.

Gotzone Merinoren
argazki erakusketa.
Portaleko tabernan.

Otsailaren 3ra arte

Fernando de Vicenteren
‘Bartleby’ erakusketa.
Portalean.

Aratosteak 2008
kartelen erakusketa.
Portalean.

denborapasak

A K O F T Y D R H V O C X A A
P E Y D U F W K Z N A G A T L
J O O G D Y S Z S F R F N S R
D I O L E W I R W E S Q E O A
A K O L A I T S O N O D R K A
I M B R V O W J B O A U R A P
O O M A E M S D L C L E A L C
O F R A G A Y A R S D U B O H
E S O I G O L G D X E L A R S
U P J E X U I O M E A Y B U M
C X Y Y I F C B R R B E E F S
F P B D A Y F U N U F C D M G
H O Z C U A E D L A S O L O T
H E I Y U R O L A G A R A I A
G O I E R R I V E P O A K R H

Topatu Gipuzkoako 10 eskualdeak.

farmaziak

18. barixakua

GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

19. zapatua

GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

20. domeka

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

21. astelehena

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

22. martitzena

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

23. eguaztena

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)


24. eguena

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

25. barixakua

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

Aurrekoaren SOLUZIOA



hildakoak

- Genoveva Gardón Mate. 76 urte. 2008-I-2.
- Gloria Santamaria Llarena. 88 urte. 2008-I-10.
- Nemesio Cobo Gutiérrez. 86 urte. 2008-I-10.
- Jose Aldalur Etxebarria. 83 urte. 2008-I-10.
- Dolores Uriarte Unamuno. 93 urte. 2008-I-11.
- Milagros Albizu Bari. 72 urte. 2008-I-12.
- Alberto I. Salvador Bernardo. 73 urte. 2008-I-12.
- Isabel Larrañaga Korta. 94 urte. 2008-I-12.
- Diego Díaz García. 75 urte. 2008-I-13.
- Silveria Mendikute Iriondo. 92 urte. 2008-I-14.
- Elvira Fariñas Guede. 83 urte. 2008-I-14.
- Ana Isabel Portillo Erkiaga. 54 urte. 2008-I-15.
- Petra Markina Astarloa. 90 urte. 2008-I-16.
- Vicenta Ruano Pajares. 82 urte. 2008-I-16.

jaiotakoak

- Julen Gil Urigoitia. 2008-I-5.
- Miren Belar Salado. 2008-I-12.

zinemazinemazinema



untzaga “Soy leyenda”

ZUZENDARIA:
Francis Lawrence
AKTOREAK:
*Will Smith, Alice Braga,
Dash Mihok, Salli Richardson..*


Robert Neville zientzilaria da; Virus izugarria zabaldu da New York-en eta bera da bizirik geratu den pertsona bakarra. Birusak kutsatutako pertsonak mutante bihurtu dira eta Neville hiltzea dute helburu...



amaña “La brújula dorada”

ZUZENDARIA:
Chris Weitz
AKTOREAK:
*Dakota B. Richards, Sam Elliott,
Nicole Kidman, Eva Green...*

Gure munduan eta pareko dagoen munduan arazo handiak daude. 12 urteko neskatxo batek, Lyra, abentura izugarria biziko du, Roger bere lagunaren bila dagoenean. Mundu biak salbatzea da bere lana...



ego-ibar “La suerte de Emma”

ZUZENDARIA:
Sven Taddicken
AKTOREAK:
*Jördis Triebel, Jürgen Vogel,
H. Schinemann, Nina Petri..*

Max-ek gaixotasun sendaezina duela jakitean, bere ugazabaren dirua lapurtu eta Mexikora doa. Emma izeneko abeltzaina ezagutuko du. Horrekin batera bizitzeko modua baita ere, baina gaixotasunak bere bidea du...



coliseo “Alta sociedad”

ZUZENDARIA:
Martha Fiennes
AKTOREAK:
*Ben Chaplin, Penélope Cruz,
Ralph Fiennes, Ian Holm..*

Goi mailako gizartean abizen garrantzitsua izatea ez da nahikoa gaur egun. Ameriketatik etorritako ohituek dirua, edertasuna eta arrakasta edukitzen dute kontuan, eta Ingalaterrako goi mailak guztiz eraldatzen dihardu...

ETXEBIZITZAK

- Amañan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Balkoi handi bi. Gasa eta igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 618-135429.
- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela-jangela, sukalde eta komun bi. Aparta. Hego orientazioa eta dena kanpora. Igogailua. Tel. 645-722957.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-798785.
- Eibarko erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. Erreferentziak badituz. Tel. 690-980846.
- Elgoibarko erdialdean pisua alokagai. 2 logela. Nahiko berria eta jantzita. Igogailua eta garajea. Tel. 943-203083.
- Elgoibarko erdigunean bikote batentzako pisua alokagai. 2 logela. Berriztuta. Ederra. Tel. 605-766911.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 649-199638.
- Zaldibarren 62 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela (leihorekin), balkoia, despentsa eta trasteleku konpartitua. Altzariekin. Ezinhoa eta eguzkitsua. 189.000 euro. Tel. 615-746231.

LOKALAK

- Lokal komertziala salgai Urkizuko dorreetan. 50 m². Pasabidearekin. Tel. 656-705279 edo 943-742930.
- 120 m²ko lokala alokagai. Elkarrekin bilerak egiteko aproposa. 18 urtetik gorakoendako. Tel. 649-983581.
- Konponketa denda traspasoan atendidu ezin delako. Tel. 667-892677 edo 688-635013.
- Ipuru auzoan taberna alokagai. Tel. 605-769571.
- Eibarren garajea hartuko nuke alokairuan. Tel. 620-160303.

SALEROSKETAK

- Okela moztekoa eta pisu elektronikoa salgai. Tel. 943-208125.
- Telebista salgai. 25 pulgada. Altzariarekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

AUTOAK

- Hyundai Lantra salgai. Merke. Tel. 943-204102.

BESTELAKOAK

- Autoa konpartituko nuke Donostiara joateko. Tel. 656-720329.
- Mobila galdu nuen aurreko barixakuan anbulategiaren parean. Eskertuko nuke tarjeta bueltatzea. Tel. 943-121386.

Iragarkiak ipintzeko:
943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

LANA

- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 666-815008.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 943-174134.
- Mutila eskaintzen da garbiketa lanak edo kamarero moduan lan egiteko. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu, tabernan lan egin... Arratsalde eta asteburuetan Tel. 680-250527.
- Soldatzailea eskaintzen da. Esperientzia erdi-automatikoa eta TIG-en. Tel. 616-207343.
- Zientzietako klaseak ematen dituz DBHn eta Batxilergoan. Tel. 627-852080.
- Kamarera/o behar da Kultu tabernan. Euskeraz jakitea baloratuko da. Tel. 685-738435.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238 edo 943-120058.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Tel. 652-736078. Sandra.
- Klase partikularak ematen dira. Tel. 678-351685.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta kalera ateratzeko. 6 euro eguneko. Tel. 943-700650.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 685-715805. Isabel.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-869958.
- Neska eskaintzen da ostalaritzan edo garbiketa lanetarako. Tel. 636-001196.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.
- LHko eta DBHko 1. zikloko partikularak ematen dituz. Talde txikiak. Esperientzia. Tel. 676-181138.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 670-095634.
- Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko. Tel. 630-531469.
- Sendagilea behar da zentro psiko-tekni-ko baterako. Tel. 943-208600 edo 667-995929.
- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak paseatzera ateratzeko. Tel. 652-766525.
- Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Tel. 610-619421.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 943-200980.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-578511.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-409732.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 660-919423.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-811678.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 618-935929.
- Neska eskaintzen da astelehenetan goizez garbiketa lanak egiteko. Baita zapatu eta domeketan tabernan. Tel. 663-409732.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Arratsalde eta gauaz. Tel. 699-576107.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 690-296857.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 616-230814.
- Kamarera/o behar da Sokoia tabernan asteburuetarako. Tel. 943-207100.
- Pertsona euskalduna behar da astean hiru eguneko (16.30etatik 18.30etara) umeak zaintzeko. Tel. 646-668659.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 669-064252.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-841158 edo 943-700461.
- Emakumea eskaintzen da tabernetan sukaldari edo garbitzaile lanak egiteko. Tel. 676-853028.
- Kamarera eskaintzen da jantokian edo barran lan egiteko. Jornada osorako. esperientzia. Tel. 663-301585.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 663-301585.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 638-420860.
- Gizon arduratsua eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Tel. 622-625812.
- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 608-005816.
- Tarota irakurtzen da. 15 euro. Tel. 608-005812.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egin beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANDER Urkia Saiz, hillaren 16xan hamabi urte egin zenituelako. Famelixaren partez.



Zorionak, ANE Picazo Hernández, bixar urte bi beteko ditzuzue-eta. Muxu haundi-haundixa famelixaren partez.

EIBAR



Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99


LANDU
Proiektuak

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**

SOLOZABAL
autoeskolak

HELBIDE BERRIA
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84

ETESA

Tfnoa. 943 12 19 73 - Faxa. 943 12 70 68
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR
e-mail: etesa@euskalnet.net



ALTZARIAK-AULKIAK

BULEGOAK BANATZEKO MAMPARAK



BULEGOETAKO INSTALAZIO OSOA

